


# ITSASOARI SO LOS OJOS DEL MAR

Euskal Herriko Talaiak eta Seinerro-postuak  
Atalayas y Señeros del País Vasco



# ITSASOARI SO LOS OJOS DEL MAR

Euskal Herriko Talaiak eta Seinero-postuak  
Atalayas y Señeros del País Vasco



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009



*San Anton mendia, gertuko  
Zarauzko Santa Kruz talaiatik.  
Vista del monte San Anton  
desde la cercana atalaya de  
Santa Cruz de Zarautz.*

## SARRERA

Informazioaren gizartean bizi gara gaur egun, eta komunikabideek bilakaera handia izan dute; nabarmena da horiek eragin handia dutela, eta, esan ohi den bezala, informazioa boterea dela. Gure iraganari buruz hitz egiteko ere erabil daiteke baieztapen hori. Izan ere, telefonoa, Internet, ADSL eta satellite artifizialak izan baino zenbait mende lehenagotik egon dira komunikabideak euskal kostaldean; eta irismen eta teknologia-maila baxuagoa bazuten ere, egungo bitarteko elektronikoen helburu bera zuten; hain zuzen ere, informazioa –eta, beraz, boterea– biltzea eta helaraztea. Horixe zen iraganeko komunikazio-azpiegituren funtzio nagusia, hau da, gure kostalde malkartsuan jarritako talaien eta seinero-postuen funtzio nagusia.

Talaiariek eta seineroek, instalazio horietako arduradun ziren gizonek –gaur egun-

## INTRODUCCIÓN

En estos tiempos de la sociedad de la información en que asistimos a un enorme desarrollo de los medios de comunicación, resulta difícil no ser conscientes de su capacidad de influencia y de que, como se suele decir, la información es poder. Esa afirmación puede aplicarse también a nuestro pasado. En efecto, siglos antes del teléfono, internet, el ADSL y los satélites artificiales existen en nuestro entorno, en la Costa Vasca, medios de comunicación que, a pesar de ser más limitados en su alcance y en su nivel tecnológico, tienen el mismo objetivo que nuestros actuales medios electrónicos. Es decir generar información –y, por tanto, poder– y transmitirla. Esa es la función capital ejercida en el pasado por infraestructuras de comunicación, como las atalayas y los puestos de señeros instalados en nuestras escarpadas costas.

go «posta elektronikoaren administrari» direlakoan baliokide izango lirateke—, igorritako seinaleak funtsezkoak ziren arrantzale euskaldunek biziraungo bazuten, eta egun-go komunikazio-sareak adina arriskuz edo gehiagoz betetako itsasotik ongizate labur bat jasoko bazuten.

Hain zuzen ere, itsasoak funtsezko papera izan zuen euskaldun guztien bizitzetan mende askoan zehar —Erdi Aroaz geroztik gutxienez—. Itsasotik iristen ziren atzerriko jakiak (zerealak, lekaleak, etab.), itsasoa erabiltzen zen industria nagusien esportazioetarako (burdinolak, ontziolak, etab.), eta itsasoari esker areagotzen ziren herrialdearen ondasunak, Amerikarekin eta Europako herrialdeekin salerosten zutenek ekartzen zituztenak, edo itsasoari esker arrantzatzen zituzten baleak eta bakailoak Ternuako eta Artikoko uretan.

Itsasoak, era berean, hondamendi ugari ekar zitzakeen, bai naturalak, ekaitzak eta galernak hain zuzen ere, bai eta gizakiek eragindakoak ere (kortsarioen eta ontzidi etsaien erasoak, inbasioak, etab.). Horiek ekiditeko, nahitaezkoa zen begi horiek zeruertzari adi egotea.

Garai hartan, portuen artean —bai eta herri bereko marinelen artean ere— lehia sortzen zen baleak harrapatu eta itsasoko arrainak arrantzatzeko, eta lehian aritzen ziren gure kostaldetik pasatzen zen itsas zirkulazioaren kopuru ahalik eta handiena erakartzeko. Hori horrela, berebiziko garrantzia zuen kostaldeko toki nabarmenetako talaian kokapenak; ikuspen handia izan behar zuten, balizko harrapaketen eta salgaiez beteta zetozen itsasontzien berri emateko. Era berean, gertuko portuetako

De las señales emitidas por los atalayeros y señeros, los hombres al cargo de esas instalaciones —esos que hoy equivaldrían a los que llamaríamos «administradores de correo electrónico»— dependían la supervivencia y el corto bienestar que los numerosos pescadores vascos obtenían de un mar tanto o más lleno de peligros que nuestra actual red de comunicaciones global.

Efectivamente, a lo largo de muchos siglos —como mínimo desde la Edad Media— el mar ejerció un papel fundamental en las vidas de todos los vascos. El mar era el medio que permitía la llegada de alimentos (cereales, legumbres, etc.) desde el extranjero, el que facilitaba las exportaciones de las principales industrias (ferrerías, astilleros, etc.) y el que procuraba el aumento de las riquezas del país, aportadas por quienes comerciaban con América y los países europeos o, algo muy a tener en cuenta, las que procuraban las pesquerías de ballenas y bacalao en aguas de Terranova y del Ártico. El mar podía ser, al mismo tiempo, la vía de llegada de desastres, tanto naturales, en forma de tempestades y galernas, como antrópicos (ataques de corsarios y escuadras enemigas, invasiones, etc.), para cuya prevención eran precisos estos ojos continuamente puestos sobre el horizonte.

En un mundo en el que los distintos puertos —o incluso los marineros de una misma localidad— se disputaban las capturas de mamíferos marinos como las ballenas y de peces y competían por tratar de atraer la mayor cantidad posible del tráfico naval que discurría por nuestras costas, era capital la disposición de atalayas situadas en puntos destacados de la costa, que gozaran de amplia



herritarrek horien berri izan zezatela sahies-  
tu behar zen. Horrela, talaiarientzat eta sei-  
neroentzat, funtsezko bihurtu zen «ikustea  
eta ikusia ez izatea» joko. Horregatik, herri  
bakoitzak estrategia bat landu eta aplikatu  
zuen informazioa eskuratzeko eta kudea-  
tzeko. Komunikazio-politika hori zela eta  
–nolabait izendatzeagatik– egon zitezkeen  
talaia bat baino gehiago herri batean, funtzio  
espezifikoak betetzeko edo batetik bestera  
informazioa helarazteko, baina alboko herrie-  
tako biztanleen eskuetara iritsi gabe.

Talaia baten funtzio nagusia albisteak  
behatzea eta helaraztea zen, instalazio ho-  
riek eraikitzen eta mantentzen zituzten  
komunitateen biziraupen ekonomikorako  
funtsezkoak zirenak: balizko harrapaketak  
(baleak eta arrain-sardak) edo merkataritza-  
itsasontziak egotea, beren helmugako por-  
tura atoian eraman behar zirenak, arrisku  
naturalak edo antropikoak egotea, portu  
lehiakideetako itsas zirkulazioa kuantifikatzea  
eta kontrolatzea, etab. Aldiz, seinero-postuen  
funtzio bakarretakoa gerta zitezkeen arris-  
kuen eta itsasoaren egoeraren berri ematea  
zen, askotan arazoak izaten baitzituzten eus-  
kal portuetako bokaleetan.

Eraikuntzari dagokionez, funtzio oso ga-  
rrantzitsua bazuten ere, talaia eta seinero-  
postuak azpiegitura sinpleak ziren. Askotan,  
lehenagotik zeuden eraikuntzak (baselizak,  
baserriak, gotorlekuak...) baliatzen ziren, be-  
ren funtzioak betetzeaz gainera, talaia baten  
funtzioak ere bete zituzten. Beste batzuetan,  
paisaiako puntu nabarmenak bilatzen ziren,  
esate baterako goraguneak eta harkaitz-mutu-  
rrak, behatoki funtzioa bete zezaten, eta etxola  
edo txabola xume bat besterik ez zen jartzen,  
zurez egindakoa askotan, talaiaria babes

visibilidad y dieran noticia de la presencia de  
posibles capturas y de barcos que llegaban  
con mercancías. Al mismo tiempo, se debía  
evitar que los vecinos de los puertos más in-  
mediatos accedieran a estas noticias. Así es  
como se hizo fundamental entre atalayeros  
y señeros el juego del «ver y no ser vistos».  
Por esa sola y exclusiva razón cada localidad  
de la costa diseñó y aplicó toda una estrate-  
gia para la obtención y gestión de esta infor-  
mación. De esa política de comunicaciones  
–por así llamarla– nace la existencia de varios  
emplazamientos atalayeros en una misma lo-  
calidad, destinados a funciones específicas o  
a transmitir de unos a otros las noticias pero  
evitando que caigan en manos de los habitan-  
tes de las localidades vecinas.

*Talaixatik ezin da Mutrikuko portu zaharra ikusi;  
bai ordea San Nikolas talaia.*



zedin. Babesleku sinple horiez gainera, behatoki gisa azpiegitura konplexuagoak egiten ziren tokietan, dorre zirkular itxurako eraikuntza txikiak egiten ziren, edo eta balkoi edo begiratoki erdizirkularren itxurakoak. XIX. mendeaz geroztik soilik eraiki ziren eraikin bakar batean behatokia eta talaia-riaren babeslekua batzen zituzten talaia-kiak. XX. mendean, eraikin horietako askoren diseinua konplexuago bihurtu zen, eta nolabaiteko intenzionalitate artistikoa eman zitzaien, itsasontzietako aginte-zubiaren itxura ematen baitzitzaien eraikinei.

Itsasoak mendeetan zehar Euskal Herriko biztanleen bizitzan izandako garrantzia murriztu egin zen nabarmen, lurreko eta aireko garraiobideek izandako bilakaeragatik

*Desde Talaixa no es visible el puerto viejo de Mutriku, sí los es, en cambio, la atalaya de San Nikolas.*



La función principal de una atalaya era la observación y la transmisión de noticias sensibles, capitales para la supervivencia económica de cada una de las comunidades que había erigido y mantenía esas instalaciones: la presencia de posibles capturas (ballenas y bancos de peces) o de barcos mercantes, que precisaban ser remolcados o atoados a su puerto de destino, la existencia de peligros naturales o antrópicos, la cuantificación y control del tráfico naval de otros puertos rivales, etc. Los puestos de señeros, en cambio, estaban destinados, casi exclusivamente, a transmitir señales de posibles peligros y del estado de la mar en las frecuentemente problemáticas embocaduras de muchos de los puertos vascos.

Desde el punto de vista constructivo, en contraste con su importante función, las atalayas y puestos de señeros eran infraestructuras muy sencillas. En muchas ocasiones se aprovechaba la existencia de otras construcciones (ermitas, caseríos, fortificaciones,...) para que, además de sus funciones específicas, ejercieran las propias de las atalayas. En otras se buscaban puntos destacados del paisaje, como prominencias y afloramientos rocosos, para que hicieran esa función de observatorio y sólo se les añadía una sencilla caseta o chabola, en muchas ocasiones toda ella construida en madera, para refugio del atalayero. En los casos en que, además de esos sencillos refugios, se construían infraestructuras algo más complejas destinadas a observatorios se optaba por construcciones pequeñas en forma tanto de torres circulares como de balconadas o miradores semicirculares. Sólo a partir del siglo XIX se construyeron atalayas que aglutinaban en un

batez ere. Horregatik, talaiek gero eta funtzio gutxiago betetzen zuten, eta, azkenean, erabili ere ez ziren egiten, XX. mendearen erdialdeaz geroztik hedatutako telekomunikazioen bilakaera zela eta. Bertan behera utzi zirenez, eta instalazio apalak zirenez, askotan galdu egin dira horien aurriak eta hondakinak, eta inor ez da gogoratzen garai batean funtsezko izandako instalazio horietako askorekin.

## TALAIAK EUSKAL HERRIAREN ITSAS HISTORIAN ZEHAR

Ezagutzen ditugun talaiek funtzio, kokapen eta eraikuntza-ezaugarri desberdinak izan dituzte, Euskal Herriaren itsas historiak bilakaera handia izan duelako, eta kostalde honetako herrietan bilakaera oso desberdina izan duelako. Bestela esanda: talaia bakoitzari erabilera bat eman zaio, eta hori aldatzen joan da herri bakoitzeko bilakaera historikoaren arabera; halere, elementu komun batzuk ere badituzte, desberdintasun handi horiez gainera. Adibidez, talaia guztietan egon behar zuen nahitaez talaia batek, edo, gutxienez, nolabaiteko espezializazioa zuen pertsonaren batek, bere behaketa puntutik ikus zitezkeen itsas zerrendan gertatzen zen guztia arreta handiz behatzeko.

Hurbileko kostaldeko arrantza-baliabi-deak ustiatzeko asmoz lehen aldiz itsasoratu zen historiaurreko gizonak zeruertzera begiratuko zuen arrain-sardak ikusteko, edo eguraldian gerta zitezkeen aldaketak sumatzeko, arrantza-espeditio primitibo eta mugatu horiek hondamendira eraman zitzaizketelako.

Erroma euskal lurraldera iritsi zenean, ziurrenik, ezarri ziren lehen aldiz itsas ibilbi-

mismo edificio el observatorio y el refugio de los atalayeros. En el siglo XX el diseño de muchos de estos edificios se hizo algo más complejo, dotándoles incluso de cierta intencionalidad artística al tratar de imitar en la construcción el aspecto del puente de mando de los barcos.

La radical disminución del papel ejercido durante siglos por el mar en la vida de los habitantes del País Vasco, motivada, principalmente, por los avances habidos en los medios de transporte terrestres y aéreos, acarrió la progresiva disminución de las funciones de las atalayas, hasta que quedaron en desuso a raíz del enorme desarrollo de las telecomunicaciones que hemos visto desplegarse desde mediados del siglo XX. El abandono y el carácter modesto de sus instalaciones han motivado en muchos casos la pérdida de sus ruinas y restos, y que así una gran parte de estas instalaciones, en otro tiempo vitales, hayan caído hoy en el olvido.

## LAS ATALAYAS A LO LARGO DE LA HISTORIA MARÍTIMA DEL PAÍS VASCO

La evolución experimentada por la dilatada historia marítima vasca y las enormes diferencias con las que se ha desarrollado entre las distintas localidades de esta costa, han motivado la variación de las funciones, de la ubicación y de las características constructivas de cada una de las atalayas de las que tenemos noticia. En otras palabras: el uso de cada uno de los distintos emplazamientos atalayeros es único y ha ido variando en función de la evolución histórica particular de cada localidad, aunque cuentan con elementos comunes a pesar de esas radicales dife-

de egonkorrak, kostalde honetako portuak euren artean lotzen zituztenak, bai eta sare inperial gero eta zabalagoko gainerako portuekin ere. Dakigunez, Erromak itsasargi handiak jarri zituen bere menpeko itsas ibilbideetan, nabigazioa errazteko. Hori horrela, pentsa liteke, tokian-tokian, euskal kostaldeko herriek izango zituztela jada talaia edo behaketa-puntu gisa erabiltzen zituzten tokiak.

Horren aztarnak garbiagoak dira Goi Erdi Aroaren garaian, inperio erromatarra gure lurraldetik atzera egiten ari zeneko edo «herri barbaro» izenekoek gaintitu eta asimilatu zuteneko garaian: garai hartan euskal kostaldean finkatutako komunitateak baleen arrantzan espezializatu ziren, eta, horretarako, ezinbestekoak ziren talaia.

Baleak harrapatzea izan zen, gero eta garrantzitsuagoa zen itsas merkataritzarekin eta garraioarekin batera, X. eta XV. mendeetan zehar euskal kostaldeko hazkunde ekonomikoa eragin zuten itsas jarduera nagusietako bat. Goren une hori zela eta, era berean, euskal kostaldean zenbait hiribildu berri sortu ziren, arrakasta handiz, XII. mendearen amaieratik aurrera.

Baleen arrantzari buruzko Euskal Herriko lehenengo dokumentu-erreferentziak 1200ekoak dira, Mutrikukoak. Talaiei dagokienez, 1310ean aipatzen dira lehen aldiz, hain zuzen ere Bermeoko Santa María de la Atalaya parrokia aipatzen da. Gipuzkoan, 1504an aipatzen da talaia bat lehen aldiz; Mutrikuko hiribilduarekin lotutako instalazio bat, hain zuzen ere. Mutrikuko hiribildua, bai eta euskal kostaldean kokatutako Gipuzkoako beste hiribildu eta Bizkaiko beste elizate batzuk ere, agertzen dira talaian jabe gisa. Hori horrela,

Todas ellas, por ejemplo, han necesitado, de manera imprescindible, la presencia de atalayeros o, cuando menos, de personas mínimamente especializadas encargadas de observar con la atención precisa todo lo que de importante acontecía en la franja de mar que se dominaba desde sus respectivos puntos de observación.

El hombre prehistórico que por primera vez se aventuró a navegar para explotar los recursos pesqueros inmediatos a la costa, otearía el horizonte a la búsqueda de bancos de peces o a fin de intuir los cambios de tiempo que podrían acarrear el desastre a esas primitivas, y limitadas, expediciones pesqueras.

Con la llegada de Roma a territorio vasco, probablemente, por primera vez se establecieron rutas marítimas estables que comunicaban los puertos de esta costa entre ellos y con el resto de los de la cada vez más extensa red imperial. Sabemos que la administración de Roma dotó a las rutas marítimas bajo su dominio de grandes faros que facilitarían la navegación. Así las cosas no sería descabellado pensar que, a escala local, los asentamientos poblacionales del litoral vasco integrados en el imperio dispusieran ya de emplazamientos usados como atalayas o puntos de observación.

Los indicios a ese respecto son mucho más claros en época altomedieval, cuando el imperio romano va retrayéndose poco a poco de nuestro territorio o es superado y asimilado por la llegada de los llamados «pueblos bárbaros»: las comunidades asentadas en la Costa Vasca en esa época se especializaron en la caza de la ballena, para la que es indispensable el apoyo de las atalayas.





Mutrikuko «Talaixaren» irudikapena, XVI. mendean.  
Recreación de «Talaixa» de Mutriku en el siglo XVI.

mendeetan zehar; talaiaik mantentzeaz, hobetzeaz eta kudeatzeaz arduratu behar izan zuten horiek. Adibidez, honako talaiez arduratzen ziren: Barrikakoaz, Ogoñoakoaz (Ibarrangelu), Lasuntalaiaz eta San Antonez (Getaria), Kukuluz (Gorliz), Talaixaz (Mutriku), Talaiaz (Pasaia) edo, zerrenda agortu gabe ere, Talaizarraz (Zarautz).

Beste batzuetan, herri bakoitzeko itsasgizonen kofradiak arduratzen ziren instalazio horiek kudeatzeaz. Kofradiek kudeatzen zituzten, adibidez, honako talaia hauek: Debakoa, Donostiako Miralla, Hondarribikoa, Lekeitiokoa, Mundakakoa, Ondarroako Santa Klara eta Zarauzko Santa Kruz.

Azkenik, ez kontseiluek ez eta kofradiek ere kudeatzen ez zituzten talaiaik ere agertzen dira dokumentuetan. Adibidez, Iza-ro uhartekoa (Bermeo); frantziskotar komunitateko komentu bat zegoen uhartean, eta horiek arduratzen ziren talaiaz. Matxixakoko talaia (Bermeo), berriz, Bizkaiko Jaurreriko itsasontzien ikuskaritza zerbitzuak zaindu eta administratu zuen XIX. mendean zehar. Eta, bukatzeko, Bilboko kontsulatuak seinale-dorre bat eraiki zuen Galea lurmuturreko gotorlekuan (Getxo) 1791n.

XVI. eta XVIII. mendeen artean, tokiko arrantzaleen beharrak asetzeaz gainera, talaiaik funtsezko azpiegitura izan ziren eskal kostaldeko portuetako merkataritza-zirkulazioa kudeatzeko. Egia da Bilboko eta Donostia-Pasaiaiko portuek biltzen zutela nazioarteko zirkulazioaren zatirik handiena, baina, halere, Gipuzkoako eta Bizkaiko portu txiki gehienek zirkulazio horren zati bat mantentzen zuten, jakien inportazioei eta burdinoletako burdina-lanei esker.

La caza de la ballena, junto con el cada vez más importante comercio y transporte marítimo, fue, en efecto, una de las principales actividades marítimas que motivaron el crecimiento económico de la Costa Vasca entre el siglo X y el XV. Este auge, a su vez, fue una de las causas primordiales que llevaron a la fundación –con éxito– de diversas villas en el litoral vasco a partir de fines del siglo XII.

Las primeras referencias documentales a la caza de ballena en el País Vasco se sitúan en 1200 en Mutriku. En cuanto a las atalayas la primera cita se fecha en 1310 cuando se alude a la parroquia de Santa María de la Atalaya, en Bermeo. En Gipuzkoa la primera mención de atalaya conocida es de 1504. Una instalación relacionada con la villa de Mutriku. Ésta, como otras villas de Gipuzkoa o de varias anteiglesias de Bizkaia, situadas en el litoral vasco, figura como propietaria de las atalayas. Una circunstancia que trae aparejada, durante siglos, la responsabilidad de su mantenimiento y mejoras y de su gestión. Ese es, claramente, el caso de las atalayas de Barrika, Ogoño (Ibarrangelu), Lasuntalai y San Anton (Getaria), Kukuluz (Gorliz), Talaixa (Mutriku), Talaia (Pasaia) o, sin agotar una posible lista, Talaizarra (Zarautz).

En otros casos la gestión de estas instalaciones correría a cargo de las cofradías de mareantes de cada localidad, tal y como sucede con las atalayas de Deba, el Mirall de Donostia, Hondarribia, Lekeitio, Mundaka, Santa Klara de Ondarroa o Santa Kruz de Zarautz.

Finalmente hay documentados otros casos de atalayas que no son gestionadas ni por los concejos ni por las cofradías. Es el caso de la situada en la isla de Iza (Bermeo), atendida

Horietan guztietan behar zen talaien laguntza, atoaia behar zuten merkataritza-ontziak ikusteko. Zerbitzu hori ordainezina zen garai hartako itsasontzientzat, horien maniobrak motelak eta pisuak zirelako, eta, batez ere, itsas korronteen eta haizeen mende zeudelako. Horiek ekiditeko, arraun-ontzi txiki esperientziadunen laguntza behar zuten, gai baitziren ontzi handien itsasbidea kontrolatzeko horien itsasketako une larrietako batean: hain zuzen ere, segurtasunez porturatzeko uanean, normalean uharriz, baxuz eta bestelako arriskuz beteta egon ohi ziren kostaldeetan.

XIX. mendetik aurrera, lurrunezko motorrei eta barne-errekuntzako motorrei esker helize-propulzioa ezarri zenean, eskifaiek hobeto kontrolatzen zituzten beren ontziak, eta, bestalde, merkataritza-zirkulazioa Bilboko eta Donostia-Pasaiaiko portuetan bildu zen ia erabat; bi arrazoi horiengatik, talaiek lehenago izandako merkataritza-funtzioa galdu zuten. Nola ez, talaia eta seinero-postuak behar izaten jarraitu zuten arrantzaleek, baina, pixkanaka, behaketa- eta komunikazio-instalazio horiek garrantzi gero eta txikiagoa izan zuten honako arrazoi hauek zirela eta: merkataritza-ontziekin gertatu zen eran, bela- eta arraun-propulzioaren ordezkapeana, kostaldean itsasargi-sistema ezarri izana, telekomunikazioen garapena (hasiera batean, lurrean aplikatutakoak eta, ondoren, itsasontzietan beretan), eta, azken batean, arrantza- eta nabigazio-prozeduren teknifikazioa eta modernizazioa. Horrela, apurka, talaia eta seinero-postuak erabiltzeari utzi zioten, eta, XX. mendearen erdialdera, bertan behera utzi zituzten azpiegitura horietako azkenak.

por los religiosos de la comunidad franciscana del pequeño convento que existía en ella, de la de Matxitxako (Bermeo), cuidada y administrada durante el siglo XIX por el Servicio de reconocimiento de buques del Señorío de Bizkaia o, finalmente, el de la torre de señales construida en el fuerte de Punta Galea (Getxo) por el Consulado de Bilbao en 1791.

Entre los siglos XVI y XVIII, además de satisfacer las necesidades de los pescadores locales, las atalayas constituyeron una infraestructura fundamental para la gestión del tráfico comercial de los puertos de la Costa Vasca. Bien es cierto que los puertos de Bilbao y Donostia-Pasaia concentraban la mayor parte del tráfico internacional, pero también lo es que la mayoría de los pequeños puertos de Gipuzkoa y Bizkaia mantenían cierto volumen de este tráfico gracias a las importaciones de productos alimenticios y a la extracción del hierro de las ferrerías. En todos ellos era necesario el apoyo de las atalayas para detectar los mercantes que precisaban ser remolcados o atoados. Este servicio es inestimable para barcos como los de aquellos siglos, de maniobra lenta, pesada y, sobre todo, sujeta a los caprichos de las corrientes de mar y de los vientos que sólo podían evitar gracias a la ayuda de pequeñas embarcaciones experimentadas movidas a remo, capaces de controlar la derrota de los grandes navíos en uno de los momentos más críticos de sus singladuras: arribar con seguridad a puerto en costas, por lo general, llenas de arrecifes, bajos y otros peligros.

A partir del siglo XIX, con la implantación de la propulsión a hélice gracias a los motores de vapor y de combustión interna,

## FUNTZIOAK

Talaiek eta seinero-postuek zenbait funtzio betetzen zituzten, esan dugun eran, instalazio horien goieneko unean oso garrantzitsuak zirenak euskal kostaldeko itsas ekonomiarako. Horietako batzuek funtzio bakar bat betetzen zuten. Beste batzuek, aldiz, zenbait funtzio betetzen zituzten eta zenbait zerbitzu ematen zioten talaia edo seinero-postua bera mantentzen zuen komunitateari edo korporazioari.

Horren arabera, hau da, gehiago edo gutxiago erabilia izatearen arabera, mende gehiagotan edo gutxiagotan iraun zuen talaia edo seinero-postu bakoitzak.

Lehenik eta behin, nabigazioan laguntzeko funtzioa betetzen zuten talaiek, portuko bertako itsasontziei zegokienez batez ere.

*Barra Orioko talaiaitik ikusita.*

*Vista de la barra desde la atalaya de Orio.*



que otorgaban a las tripulaciones un mayor control sobre sus naves, y la concentración del tráfico comercial casi en exclusiva en los puertos de Bilbao y Donostia-Pasaia provocó que la mayoría de las atalayas perdieran esa antigua función comercial. Por supuesto, los pescadores continuaban precisando de las atalayas y de los puestos de señeros, pero, como ocurre en el caso de los navíos mercantes, a raíz de la sustitución de la propulsión a vela y remo, del establecimiento del sistema de faros en la costa, del desarrollo de las telecomunicaciones, aplicadas primero en tierra y después en las propias embarcaciones, y, en suma, del desarrollo de la tecnificación y modernización de los procedimientos de pesca y de navegación, ambas clases de instalaciones de observación y comunicación vieron disminuir progresivamente su importancia. Así, poco a poco, atalayas y puestos de señeros fueron quedando en desuso, siendo abandonadas las últimas de esas infraestructuras hacia mediados del siglo XX.

## FUNCIONES

Las atalayas y puestos de señeros cumplían diversas funciones, que, tal y como hemos ido poniendo de manifiesto, eran de una importancia capital para la economía marítima de la Costa Vasca en la época de esplendor de esas instalaciones. Algunas de ellas sólo tenían atribuida una labor. Otras, en cambio, aglutinaban varias funciones y servicios a la comunidad o corporación que las mantenía. Dependiendo de ese menor o mayor grado de utilización, cada atalaya o puesto de señeros permaneció en activo durante más o menos años.





*San Nikolas edo Garraitz uhartea, Lekeitio; seinero-postu bat zegoen bertan.*

*Isla de San Nikolas o Garraitz, en Lekeitio, donde existía un puesto de señeros.*

Seinero-postuekin batera egiten zuten lan hori. Portuetako bokaleetatik gertu jarri ohi ziren azken horiek, eta horien zeregin nagusia zen itsasontziak gidatzea portuetara sartzeko eta horietatik irteteko maniobra arrisksuetan. Maniobra horiek are eta zailagoak ziren ibai-ahoetako portuetan. Horietan, gehienetan, sakonera eskasa egon ohi zen, estuarioen hondoan sedimentuak pilatzen zirelako, eta barra edo hondar-bankuak sortzen zirelako. Toki aproposak ziren portu horietako bakoitzera hurbiltzen ziren itsasontziak bertan enkailatu ez zitezten. Adibidez, XVIII. mendean, Bilboko Kontsulatuak seineroen sistema konplexu bat ezarri zuen, ikurrinekin egindako seinaleetan oinarritzen zena. Galea lurmuturreko eta San Inazioko gotorlekueetatik gidatzen zituzten Abrara iristen ziren itsasontziak, Portugaleteren parean, Bilboko itsasadarreko sarrera gurutzatzen zuen hondar-barra arazotsua ekidin behar baitzuten –garai hartako nabigatzaile gehienek ongi ezagutzen zuten hondar-barra hori–.

Askotan, talaiak berek betetzen zuten nabigazioan laguntzeko funtzioa; zeruertza behatzen zuten galernarik edo eguraldi-aldaketa zakarrrik egongo ote zen aurreikusuteko, bai eta kortsariorik edo gerra-ontzi

En primer lugar, las atalayas cumplían la función de asistencia a la navegación, especialmente a las embarcaciones del propio puerto. Este cometido era compartido con los puestos de señeros. Estos últimos se ubicaban en las inmediaciones de las embocaduras de los puertos y su principal misión era guiar a las embarcaciones en las peligrosas maniobras de entrada y salida a los puertos, especialmente arduas, en aquellos ubicados en desembocaduras de los ríos. Lugares que, mayoritariamente, se veían afectados por problemas de escaso calado, consecuencia de la acumulación de sedimentos en el fondo de los estuarios que tomaban la bien conocida forma de barras o bancos de arena. Precisamente el lugar idóneo para que embarrancasen las naves que se acercaban a cada uno de esos diferentes puertos. Por ejemplo, en el siglo XVIII el Consulado de Bilbao estableció un complejo sistema de señeros que, mediante señales de banderas, guiaban desde los fuertes de Punta Galea y de San Ignacio a los buques que llegaban al Abra y debían sortear la tan problemática –y bien conocida por la mayoría de los navegantes de la época– barra de arena que cruzaba la entrada de la ría bilbaína a la altura de Portugalete.

etsairik ba ote zegoen jakiteko. Adibidez, Mutrikuko talaian, Talaixa izenekoan, suak pizten zituzten gauez, ilunabarraren ondoren portura zuzentzen ziren itsasontziak gidatzeko. Arrantzan ari ziren itsasontziei arriskuen edo bestelako albiste garrantzitsuen berri emateko, ikurritan oinarritutako seinale-sistema bat zeukan, Galea lurmuturrekoak bezalakoa. Behe-lainoa zela eta, seinale horiek ikusi ezin ziren uneetarako, kanpai bat jarri zen talaian, seinale soinudunak egiteko aurreko seinale horien orde.

XX. mendeko lehenengo hamarkadetan, telefono-zerbitzua jarri zen talaia modernoetan, lgeldoko meteorologia-behatokiak igorritako iragarpenak jasotzeko. Ondoren, informazio hori helarazten zitzairen seinale bidez itsasontziei talaietatik. Juan Miguel de Orcolagak sortu zuen atmosfera-aurreikuspenetarako sistema berritzaile hori. Izan ere, Zarauzko parroko gisa lanean aritu zen bitartean egindako

En muchas ocasiones las propias atalayas cumplían estas funciones de apoyo a la navegación, oteando el horizonte en previsión de galernas y otros cambios bruscos del tiempo, así como para descubrir la presencia de corsarios o barcos de guerra enemigos. Por ejemplo, en la atalaya de Mutriku, conocida como Talaixa, se encendían fogatas por la noche para guiar a las embarcaciones que se dirigían al puerto tras el crepúsculo. A fin de avisar de peligros y de otras noticias de importancia a las embarcaciones que ya se hallaban faenando, disponía, como la de Punta Galea, de un sistema de señales mediante banderas. Para momentos en que la niebla impedía la visibilidad de estas señales visuales se instaló en la atalaya una campana que emitía señales sonoras que reemplazaban adecuadamente a las primeras.

Durante las décadas iniciales del siglo XX las modernas atalayas fueron dotadas

*Galea lurmuturreko talaia eta gotorlekua, San Inazioko talaiatik eta gotorlekutik (Getxo).  
Vista de la atalaya y fuerte de Punta Galea desde la atalaya y fuerte de San Ignacio (Getxo).*






EGURALDIA  
EL TIEMPO

TALAIEN FUNTZIOAK • FUNCIONES DE LAS ATALAYAS

ARRANTZA  
PESCA

MERKATARITZA TRAFIKOA  
TRÁFICO MERCANTIL

ATOIA  
ATOAJE







*Gipuzkoako portu guztietako bokaleak Mutrikuko Talaixatik ikusita.*

*Vista de las embocaduras de todos los puertos de Gipuzkoa desde Talaixa de Mutriku.*

behaketa zehatzetan oinarrituta, euskal kostaldeko bat-bateko galernak sortzeko arrazoi zientifikoak ezarri zituen. Arrantzale ugari hil ziren mendeetan zehar, galerna horiek zirela eta.

Bigarren, talaien funtzio ezagunena zen arrantzale-ontziak ohartaraztea arrain-sardak baldin bazeuden eta, batez ere, baleak baldin bazeuden. Bi kasu horietan, baina batez ere zetazeoak izanez gero, bizkor mugitzea funtsezkoa zen, bai horiek harrapatzeko, bai eta talaiatik baleak edo arrain-sardak ikusitako puntura ahalik eta azkarren heltzeko ere.

Baleak harrapatzeari zegokionez, are eta garrantzitsuagoa zen bizkor ibiltzea, izan ere, alboko herrietako arrantzaleek eta, nola ez, talaiariak, aurrea har zezaketen arrain-sardak baino askoz ere ikusgarriagoak eta handia-

de servicio telefónico para recibir los partes transmitidos desde el observatorio meteorológico instalado en Igeldo. Información que después era retransmitida mediante señales desde las atalayas a las embarcaciones. Este novedoso sistema de previsión atmosférica fue obra de don Juan Miguel de Orcolaga, quien, tras arduas observaciones realizadas mientras ejerció de párroco en Zarautz, estableció las causas científicas de la formación de las repentinas galernas de la Costa Vasca que tantas vidas se habían cobrado entre los pescadores de ese litoral a lo largo de los siglos.

En segundo lugar, la función más conocida de las atalayas era la de avisar a los pescadores del puerto de la presencia de bancos de pescado y, especialmente, de ballenas. En ambos casos, pero especialmente en el de la



goak ziren presa horiek ikusterakoan eta harrapatzerakoan. Zetazeoak zeudela bizkor jakinarazteak berebiziko garrantzia zeukan. Hori ongi ulertzeko, kontuan hartu behar dugu, eskuratutako mozkinak harraketan parte hartutako itsasontzien artean banatzeko, kontuan hartzen zela bakoitzak zer ordenatan sartu zuen arpoia, eta banaketaren zati handi bat zetazeoari eutsi zion lehenengo itsasontziarentzat izan ohi zela.

Labur esanda, talaiairenen lana oso garrantzitsua zen bere herrikoak gertuko herrietakoak baino lehenago iritsi zitezkeen baleengana. Egoera berezi horiek kontuan izanda, erraz uler daiteke euskal kostako komunitate bakoitzak horrenbesteko ahaleginak egin izana beren talaiaietatik egindako seinaleak beren portuetatik soilik ikusi zitezkeen.

Hirugarrenik, aurrekoarekin lotutako funtzio bat betetzen zuten talaiek: hau da, portu jakin batera iritsi nahi zuten itsasontziak, eta, horretarako, atoian eraman behar zirenak, ikustea. Neurri jakin bateko itsasontzien zirkulazioa zuten portu guztiek eskaintzen zuten atoi-zerbitzua, eta garrantzi handikoa izan zen itsas propulsioa bela bidezkoa izan zen mende guztietan zehar. Belaontzi handientzat, haizeaz gainera bestelako indar eragilerik ez zutenentzat, oso zailak eta arriskutsuak ziren porturatze eta portuetatik irteteko lanak eta manio-brak, batez ere, itsasoko baldintzak txarrak zirenean. Baleen arrantzarekin gertatzen zen eran, gertuko herrietako atoi-ontzi txikiak lehian ibiltzen ziren beren kostaldera iritsi nahi zuten merkataritza-ontziak atoian eramateko, bai eta bestelako ontzi handi batzuk ere, hala nola arrantza-ontziak eta gerra-ontziak. Ontzi horietara lehenengo iristen

caza de cetáceos, la rapidez era fundamental. Tanto para las propias tareas de captura como para llegar cuanto antes al punto en el que la atalaya había detectado la presencia de ballenas o de bancos de peces. En el caso de la caza de la ballena esta premura era aún más acuciante ya que los pescadores de localidades vecinas y, claro está, sus atalayeros, podían anticiparse en la detección y captura de presas mucho más visibles y voluminosas que los simples bancos de peces. Para comprender bien la celeridad con la que había que avisar de la presencia de cetáceos, hay que tener en cuenta que el reparto de los beneficios obtenidos entre las embarcaciones que participaban en la captura de las ballenas se hacía en función del orden en que cada una había conseguido clavar sus arpones, correspondiendo una parte sustancial del reparto al primero que conseguía asir al cetáceo. En suma, la labor del atalayero resultaba de gran importancia para conseguir que fuesen los vecinos de su pueblo quienes alcanzasen a las ballenas antes de que lo hicieran los de las localidades del entorno. Teniendo en cuenta esas especiales circunstancias se comprende sin dificultad el afán de cada comunidad del litoral vasco para conseguir que las señales de las atalayas fueran observables únicamente desde sus respectivos puertos.

En tercer lugar, otra función estrechamente vinculada con la anterior consistía en detectar la presencia de embarcaciones que pretendían arribar a determinado puerto y que, a tal fin, precisaban ser atoadas o remolcadas. El servicio de atoaaje que ofrecían todos los puertos que disfrutaban de tráfico de embarcaciones de cierto porte, era de gran importancia en los siglos en los que la propulsión naval

zirenek eta horietako kapitainekin harremanetan jartzen zirenek eskuratu ohi zuten hori atoian eramateko eskubidea, eta baldintzak adosten zituzten –zerbitzuaren zenbatekoa, zenbat itsasontzik hartuko zuen parte operazioan, eta abar–. Beraz, atoi-maniobretan ere funtsezkoa zen bizkortasuna, are eta gehiago kontuan hartuz gero portu jakin batera iritsitako ontzi bat atoian eramandakoek izango zutela hori berriz atoian eramateko eskubidea portu horretatik irteterakoan, portu horretako herritarrak izan, edo ez. Laburbilduz, oraingo honetan ere funtsezkoa zen talaiarien lana –arrantzarekin edo baleak harrapatzearekin gertatzen zen eran–, beren herrietako jendeak ahalik eta atoi-zerbitzu gehienak eskuratu ahal izateko, bai beren portuetara, bai eta ingurukoetara ere.

Laugarrenik, talaien beste funtzio nagusietako bat zen beste portu batzuetako merkataritza-zirkulazioa nolakoa zen jakitea. Euskal historiografiak, hamarkadetan zehar, agerian utzi du jakien itsaso bidezko inportazioek garrantzi izugarria izan zutela –batez ere, zerealak eta lekaleak–, bere populazioa asetzeko behar zen guztia ekoizteko egoki ez zen lurralde batera zuzentzen baitziren. Mendeetan zehar, gure kostaldeko portu gehienek itsasontzi atzeritarren (gehienak frantsesak) zirkulazio handia izan zuten. Gure kostaldera jotzen zuten elikagaiez beteta, bertako merkatuak erakartzen baitzituen, zerealen, ardoaren edo, oinarrizko beste elikagai batzuen artean, olioaren uzta handiak ekoizteko oso desegokiak zirelako lurralde horiek. Itsasontzietatik saltzen ziren zuzenean salgaiak, eta, ondorioz, salmenta-prezioak aldatu egiten ziren portura iritsitako zerealen, leka-leen eta gatz kopuruaren arabera.

dependía, exclusivamente, de la vela. Para los grandes veleros, carentes de cualquier otra clase de fuerza motriz aparte del viento, las tareas y maniobras de arribada y de partida de los puertos constituían momentos críticos, sumamente peligrosos. Especialmente en momentos de malas condiciones de mar. Al igual que sucedía con la caza de ballenas, las pequeñas embarcaciones de ataje de puertos vecinos se disputaban el remolque de los mercantes y otras naves como grandes pesqueros o buques de guerra que trataban de arribar a sus costas. Las que primero se acercaban y entablaban conversaciones con los capitanes de esos navíos eran las que obtenían el derecho de su ataje y acordaban las condiciones –importe del servicio, número de embarcaciones participantes en la operación, etc.–. La rapidez en las maniobras de ataje resultaba, por tanto, fundamental y más teniendo en cuenta que quienes atoasen a un barco que arribaba a determinado puerto tenían el derecho exclusivo de volverlo a remolcar cuando saliese, fuesen o no vecinos de ese puerto. En suma, la buena labor de los atalayeros era de nuevo crucial –como en el caso de la pesca o de la caza de la ballena– para que sus respectivos vecinos consiguieran el mayor número de atajes de buques destinados a su propio puerto o a algún otro de los alrededores.

En cuarto lugar, otra función principal ejercida por las atalayas era conocer el tráfico comercial de otros puertos. La historiografía vasca lleva décadas poniendo de manifiesto la capital importancia de las importaciones de comestibles por mar –principalmente cereales y legumbres– destinadas a una tierra poco apta para producir todo lo que se

Askotan, portu jakin batera iritsitako itsasontziak beren karga batere saldu gabe joaten ziren, toki berera itsasontzi ugari heldu izateak gehiegizko eskaintza eragiten zuelako, eta, ondorioz, karga horien prezioak izugarri jaisten zirelako, salgaien jabeentzat batere errentagarri izan gabe. Merkatu-egoera berezi horiek beste negozio-aukera bat sortzen zuten talaien lan onaren mendeko itsasontzientzat: kapitainek arduratu behar izaten zuten, beren armadoreen edo garraiatzen zuten kargaren jabeen aurrean zuten erantzukizuna zela eta, salmentarekin ahalik eta etekin handiena lortzeaz; horregatik, beren kargamentuaren zati bat, txalupetan edo beste itsasontzi txiki batzuetan, salgaiez asetako portuetatik beste portu batzuetara bidaltzea erabakitzen zuten, okerrago hornitutako merkatuak, eta, ondorioz, kargaren jabeentzat errentagarriago izango ziren prezioak ordaintzera behar-tutako merkatuak, aurkitzeko asmoz.

necesitaba para abastecer a su población. Durante siglos la mayoría de los puertos de nuestra costa disfrutaron de un considerable tráfico de embarcaciones extranjeras, la mayoría francesas, que acudían a ella cargadas de víveres atraídas por el mercado de unos territorios muy poco aptos para la producción de grandes cosechas de cereales, vino o, entre otros productos alimenticios básicos, aceite. La venta de mercancías se hacía directamente desde las embarcaciones y, en consecuencia, los precios de venta variaban en función del volumen de cereales, legumbres y sal que había llegado a cada puerto. Era bastante frecuente que las embarcaciones arribadas a un determinado puerto zarpasen sin haber vendido parte alguna de su carga, ya que los numerosos barcos llegados al mismo lugar provocaban una sobreoferta que, lógicamente, llevaba a la disminución del precio de esas cargas a unos niveles en absoluto

*Bizkaia ekialdeko portuetako bokaleak eta Kantabriako batzuk, Matxitxakotik (Bermeo) ikusita.*

*Vista de las embocaduras de los puertos orientales de Bizkaia y de parte de los de Cantabria desde Matxitxako (Bermeo).*





*Matxitxako arteko portu guztietako bokaleak San Anton talaiatik (Getaria) ikusita.*

*Vista desde la atalaya de San Anton (Getaria) de las embocaduras de todos los puertos ubicados hasta Matxitxako.*

Laburbilduz, prezioak etengabe negoziatzen ziren saltzaile atzerritarren eta euskal portuetako erosleen artean. Azken horientzat oso garrantzitsua zen jakitea zenbat itsasontzi atzerritar heldu ziren beste portu batzuetara. Izan ere, merkataritza-ontzi gutxi heldu zirela-eta prezioak garesti bazeuden, elikagaiak beste portuetatik inporta zitzaketen; izan ere, horietan itsasontzi handiagoa bazeuden, pentsa zitekeen horietan prezioak baxuagoak izango zirela eskaintza handiagoa zegoelako. Gainera, portura heldutako merkataritza atzerritarrak behartzeko ere erabil zitekeen talaietatik eskuratutako informazio hori, hasieran eskatutako prezioak murriz zitzaten. Labur esanda, talaiek informazio baliotsua biltzen zuten beren kokapen pribilegiatuari esker, kostaldeko portu guztien ahokadurak txori-begizko perspektibatik ikusten baitzituzten. Beraz, funtsezko misioa betetzen zuten merkataritzan eta, oro har, beren elikagaiak itsasotik eskuratzen zituzten eskualdeen ekonomian.

rentables para los dueños de la mercancía. Esas peculiares circunstancias de mercado creaban otra oportunidad de negocio para las embarcaciones que dependían de la buena marcha de las atalayas: muchos capitanes, responsables ante sus armadores o los dueños de la carga que transportaban de obtener el máximo beneficio posible en su venta, decidían remitir desde los puertos saturados de mercancía parte de su cargamento en chalupas y otras pequeñas embarcaciones a otros puertos con la esperanza de hallar en ellos mercados peor abastecidos y por tanto obligados a comprar a precios más rentables para los propietarios de la carga.

En resumen, los precios se negociaban continuamente entre los vendedores extranjeros y los compradores de los puertos vascos. Para éstos últimos era de capital importancia disponer de noticias acerca del número de barcos extranjeros arribados a otros puertos, pues en momentos de carestía, provocados precisamente por la escasa llegada de mercantes, podía recurrir a la importación de alimentos desde otros puertos



## KOKAPENA

Esan dugun eran, nahitaezkoa zen kokapen egoki bat aukeratzea, talaiek eta seinero-postuek beren funtzioak behar bezala bete ahal izateko. Talaia baten kokapen optimoak honako baldintza hauek bete behar zituen: 1) Ikuseremu zabala, kostaldeko portuen bokale gehienak ikusi ahal izateko, eta, ahal izanez gero, baita gertuko herrietako talaian seinaleak ere; 2) Ahal zen neurrian, bertatik igorritako seinaleak gainerako talaietatik ikustea ekiditea, edo, gutxienez, gertuko herrietako portuetatik; 3) Seinaleak ahalik eta bizkorren igorri ahal izatea bere herrira. Bistakoa denez, oso zaila da, ezinezkoa ia, talaia batek baldintza horiek guztiak betetzea, baina, bildu dugun informazioaren arabera, beti kokatu zituzten ahalik eta toki hoberenean inguruko ezaugarri geografikoak aintzat hartuz gero. Nola ez, talaia batzuek beste batzuek baino hobeto bete zituzten baldintza horiek, portuaren inguruko ezaugarri geomorfologikoen arabera —ez da gauza bera itsasadar baten barruan kokatutako portu bat, edo lurmutur edo itsaso zabaleko beste elementu geografiko baten babesean kokatutako bat—, edo


en los que habían recalado esas embarcaciones y, lógicamente, se podía presumir que los precios serían más módicos debido a ese exceso de oferta. Esa información, obtenida desde las atalayas, podía servir, además, para presionar a los mercaderes extranjeros llegados al propio puerto a fin de que redujeran los precios que en un primer momento pedían. En suma, las atalayas gracias a esa información aventajada que les proporcionaba su ubicación privilegiada, situada casi a vista de pájaro sobre la mayoría de las embocaduras de los distintos puertos del litoral, cumplían una misión primordial en el comercio y en general en la economía de aquellas comarcas que se surtían de alimentos por vía marítima.

## UBICACIÓN

Como ya hemos destacado era de carácter vital seleccionar la ubicación más adecuada posible para que las atalayas y los puestos de señeros cumplieran correctamente sus funciones. Una posición atalayera óptima debía cumplir con los siguientes requisitos: 1) Amplia visibilidad que se extienda sobre

*Higer arteko portu guztietako bokaleak San Anton talaiaetik (Getaria) ikusita.*

*Vista desde la atalaya de San Anton (Getaria) de las embocaduras de todos los puertos ubicados hasta Higer.*



kokapen geografikoaren arabera –adibidez, ez ditu behaketa-aukera berak izango golko baten barnean kokatutako portu batek edo lurmutur irten batean kokatutakoak–. Edo nola ere, ahal zen neurrian baldintza horiek betetzeko helburuz, zenbait talaiaz eta seinero-postuz osatutako sistemak eraiki zituzten herri gehienek, eta horietako bakoitzak funtzio espezifiko bat betetzen zuen, «ikustea eta ikusia ez izatea» helburu orokorra bete ahal izateko guztien artean.

Adibide gutxi batzuk nahikoa dira tokiko «talaia-sistema» horiek nola funtzionatzen zuten azaltzeko. Bilboko portuak, adibidez, merkataritza-zirkulazio sendoa zuenez, akordioak egin zituen herri mugakideekin beren talaia-sistemak antolatzeko. Horrela, jasota geratu da Bilboko Kotsulatuak seinero-postuen multzo bat zeukala Abrako itsas

la mayor parte posible de embocaduras de puertos de la costa y, a poder ser, sobre las señales de las atalayas de localidades más cercanas; 2) Evitar en lo posible que las señales emitidas sean visibles desde las atalayas o, cuando menos, desde los puertos de las localidades más inmediatas; 3) Procurar que la transmisión de las señales a la localidad a la que pertenece sea realizada con toda la rapidez posible. Evidentemente, es muy difícil, por no decir imposible, que una misma atalaya cumpliera con todos estos requisitos, aunque observando la ubicación de las que hemos podido documentar se comprueba que siempre se situaron en la mejor posición que podían ofrecer las características geográficas del entorno. Por supuesto, algunas atalayas conjugaron mejor que otras los citados requisitos, en función de las características geomorfológicas del entorno en que se ubica el puerto –no es lo mismo uno emplazado en el interior de una ría que otro situado al socaire de un cabo o cualquier otro accidente geográfico adentrado en mar abierto–, y de su posición geográfica –por ejemplo, tampoco disfruta de las mismas posibilidades de observación un puerto ubicado en el interior de un golfo al situado en un prominente cabo-. De todas maneras, a fin de aunar en lo posible estos requisitos, la mayoría de las localidades procedieron a diseñar sistemas que estuvieran integrados por varias atalayas y puestos de señeros, destinando a cada uno de esos elementos el cumplimiento de funciones específicas del objetivo general de «ver y no ser vistos».

Algunos ejemplos bastan para ilustrar el funcionamiento de estos «sistemas atalayeros» de escala local. Puertos como Bilbao,

*San Inazioko gotorlekua, eta Galea lurmuturra atzean.  
Fuerte de San Ignacio con el de Punta Galea al fondo.*



*Gorlizko talaia-  
tik ikusten  
den bista, Plentziako  
itsasadarraren ibai-ahoa  
eta Barrikako talaia  
atzean.*

*Vista desde el paraje de  
la atalaya de Gorliz, de la  
desembocadura de la ría  
de Plentzia y de la atalaya  
de Barrika al fondo.*



zirkulazioa zuzentzeko, inguruko elizateetan kokatuta zeudenak. Galean (Getxo), XVI. mendean aipatzen da lehen aldiz seinero bat.

1782an, Kontsulatuak farol bana jarri zituen Galea lurmuturreko gotorlekuan eta Luzero lurmuturrean (Zierbena). Baliabide hori nahikoa ez zenez, 1791n, ikurrinetan oinarritutako beste sistema bat ezarri zuten San Inazio gotorlekuan, Talaieta eta Getxo arteko inguruan, eta dorre handi bat eraiki zuten, gaur egun, oraindik, Galea lurmuturreko gotorlekuan dagoena. Horren antzera, Plentzian ere, itsasadarraren barneko hiribilduan, garraio-ontziteria propioa zutenean, bertako herritarrek akordioak izenpetu behar izan zituzten Barrika eta Gorliz elizateekin talaia-sistema komun bat antolatzeko. 1694an, Plentziako Itsasgizonen San Pedro Kofradiak konkordia-gutun bat izenpetu zuen aipatutako elizate horiekin, guztien artean aurre egiteko hiru herri horien mesederako antolatutako, mantendutako eta partekatutako talaia-rik mantentzeak eragindako gastuei.

Beste batzuetan, beren portuetako jarduera ekonomikoak sustatzeko, euskal kostaldeko herriek talaia-sistemak diseinatu zituzten ahalik eta informazio gehien biltzeko,

que gozaban de un tráfico comercial consolidado, llegaron a establecer acuerdos con las localidades limítrofes para la organización de sus sistemas de atalayeros. Así, consta que el Consulado de Bilbao disponía de un conjunto de puestos de señeros para dirigir el tráfico naval en el Abra, situados en los términos municipales de las anteiglesias circundantes. En la Galea (Getxo), las primeras referencias de la existencia de un señero datan del siglo XVI. En 1782 el Consulado instaló sendos faros en el fuerte de Punta Galea y en Punta Lucero (Zierbena). Siendo insuficiente este recurso, en 1791 dispusieron otro sistema de señales mediante banderas en el fuerte de San Ignacio, situado en el paraje de Talaieta de Getxo, y construyeron la imponente torre que aún se levanta en el interior del fuerte de Punta Galea. De manera similar, los vecinos de Plentzia, villa ubicada en el interior de la ría y que contaba con una potente flota transportista propia, se vieron obligados a establecer acuerdos con las anteiglesias de Barrika y Gorliz para organizar un sistema atalayero común. En 1694 la Cofradía de Mareantes de San Pedro de Plentzia firmó una carta de Concordia con las citadas anteiglesias



*Izaro eta Ogoño lurmuturra  
Bermeoko Taleatik.*

*Vista de Izaro y de cabo Ogoño desde  
Talea de Bermeo.*

eta inguruko herriek informazio hori baliatzea ekiditeko. Bermeok, adibidez, talaia-instalazioen sare bat zeukan, ezaugarri horiek betetzen zituen, eta Matxitxakon, Izaron, Talaian (Talea) eta Talagutxian zeuden instalazio horiek. Horietatik lehenengoak, Matxitxako lurmuturrekoak, ikuseremu pribilegiatua zeukan euskal kostalde osoko talaia guztien artean. Bertatik, Kantabriaren eta Higer lurmuturraren arteko portu guztietako bokaleak ikus zitezkeen. Era berean, Matxitxako lurmuturrak Ogoñoko talaia ikuseremua mugatzen zuen mendebaldetik; Ogoñoko talaia lbarrangelukoa zen, eta bertako herritarrak lehian aritzen ziren bermeotarrekin euskal kostaldeko zati horretako arrantza, baleak eta itsas zirkulazioa kontrolatzeko. Ogoñoko talaia ikuseremua mugatzeak abantaila handia ematen zien bermeotarrei, eta, era berean, Ogoñotik ekialdera itsasoan zer gertatzen zen jakin zezaketen unean-unean Izaro uharteko talaia-postuari esker. Matxitxakon eta Izaron bildutako informazioa Bermeoko portura helarazten zen Talaiaiko –egungo Talea auzoan zegoen– eta Talagutxiko talaietatik –herri bereko portuaren gainean zegoen–. Bi talaia horien seinaleak, gainera, ezin ziren

para atender en común los gastos de sostenimiento de esos atalayeros organizados, mantenidos y compartidos en beneficio común de esas tres localidades.

En otros casos, a fin de potenciar las actividades económicas que se desarrollaban en sus puertos, las poblaciones del litoral vasco procuraron diseñar sistemas atalayeros que permitieran obtener la máxima cantidad de información posible evitando que otras localidades del entorno se beneficiaran de la misma. Bermeo, por ejemplo, contaba con una red de instalaciones atalayeras, dispuestas en Matxitxako, Izaro, Talaia (Talea) y Talagutxia, que respondía a esas características. La primera de ellas, la del cabo Matxitxako, gozaba de uno de los más privilegiados campos visuales de los que podía disfrutar cualquiera de las atalayas diseminadas por todo el litoral vasco. Desde ella se alcanzaba a observar las embocaduras de todos los puertos ubicados entre Cantabria y el cabo de Higer. A su vez el cabo Matxitxako limitaba hacia occidente el campo visual que disfrutaba la atalaya de Ogoño, situada en lbarrangelua, cuyos vecinos competían con los bermeotarras por el control de la pesca, caza de ballenas y el

ikusi Mundaka herritik, eta herri horretako talaiariiek igorritakoak, berriz, Izarotik ikus zitezkeen.

«Ikustea eta ikusia ez izatea» politika horren beste adibide garbi bat da Mutrikuren talaia-sarea. Herri hori, Deba bailararen sarrean, merkataritza-bide garrantzitsua zen, penintsularen barnealdearekin lotuta zegoena, eta, mendeetan zehar, lehen mailako arrantzaz-portua izan zen. Talaixako talaiaitik, Alkotea lurmuturraren gainean zegoenetik, Gipuzkoako portu guztietako bokaleen ikuspegi pribilegiatua zegoen, eta bertako seinaleak, berriz, ia ikusezinak ziren Debako eta Ondarroako alboko portu lehiakideentzat. Kanpotik ikusiak ez izateko, kokapena funtsezkoa zen. Barnealdera sartuta zegoen pixka bat, eta seinaleak San Nikolas talaia igortzen ziren, Mutrikuko portutik gertu zegoen inguru batean kokatutakora.

Beren kokapen geografikoa zela eta, ikus-eremu handirik ez zuten herriek, edo ondoko

*Ogoñoko lurmuturra Eako talaiaitik.*

*Vista del cabo Ogoño desde la atalaya de Ea.*



tráfico marítimo de ese sector del litoral vasco. Esta limitación del campo visual de la atalaya de Ogoño constituía, obviamente, una enorme ventaja para los vecinos de Bermeo, que, a su vez, disponían también de puntual noticia sobre todo lo que ocurría en el mar situado hacia oriente del cabo Ogoño gracias al puesto atalayero de la isla de Izaro. La información transmitida desde Matxitxako e Izaro era recibida y retransmitida al puerto de Bermeo desde las atalayas de Talaia —situada en el actual barrio de Talea— y Talagutxia —ubicada sobre el propio puerto de esa localidad—. Las señales de estas dos atalayas no eran visibles, además, desde la vecina localidad de Mundaka, mientras que las emitidas por las atalayeros de esta última localidad sí lo eran desde Izaro.

Otro ejemplo significativo de esa política del «ver sin ser vistos» es el de la red atalayera propiedad de Mutriku. Esta localidad, situada en la entrada al valle de Deba, era una importante arteria comercial que comunicaba la costa con el interior de la Península y fue, durante siglos, un puerto pesquero de primer orden. Desde la atalaya de Talaixa, ubicada sobre la punta de Alkolea, se disponía de una privilegiada visión de las embocaduras de todos los puertos de Gipuzkoa y sus señales eran prácticamente invisibles desde los vecinos puertos rivales de Deba y Ondarroa. Esta invisibilidad externa se conseguía por su posición, un tanto retranqueada hacia el interior, desde donde se transmitían las señales a la atalaya de San Nikolas, instalada en un paraje cercano al puerto de Mutriku.

Aquellas localidades que por su posición geográfica se veían privadas de un amplio campo visual o se hallaban a merced de





*Portua Elantxobeko Talaia Nagusitik, Ogoño lurmuturraren oinetan kokatua.*

*Vista del puerto desde Talaia Nagusia de Elantxobe, situada al pie del cabo Ogoño.*

portu boteretsu baten lehiaren mende zeudenek, beren bizilagun indartsuetatik igorritako berriak «zelatatu» ahal izateko moduko tokietan jartzen zituzten talaiaak, eta, era berean, berenak ezkututzen zituzten haien ikuseremutik. Horrelakoxea zen, adibidez, Eako Talako ermiteako talaia; bertatik, Ogoñoeko talaiatik (Ibarrangelua) igorritako seinaleak ikusten ziren, hobeto edo okerrago, baina bigarren horrek, berriz, ezin zituen lehenaren seinaleak ikusi. Berdin gertatzen zen Zarauzko Santa Kruz talaiarekin Getariako San Anton talaiari zegokionez; azken horrek kostaldearen ikuseremu zabalenetakoa zeukan.

Horri dagokionez, Pasaiako portuko talaia-sistema ere oso interesgarria da. XIX. mendera arte Donostia hiri boteretsuarena izan zen. Pasai Donibaneko herritarrek, Hondarribiaren jurisdikzioko auzokoez, Jaizkibel mendiaren tontorrean jarri zuten beren talaia. Portuko kanalaren sarreran dago Jaizkibel, eta, bertatik, Donostiako Mirall talaiatik egiten ziren seinaleak ikus zitezkeen, Ulia

la competencia ejercida por un poderoso puerto vecino procedían a situar sus atalayas en posiciones desde las que se podían «espíar» las noticias emitidas desde las atalayas de sus vecinos más favorecidos, escondiendo al mismo tiempo las suyas a su campo de visión. Ese era el caso de la atalayas de Talako ermitea de Ea, desde la que se observaba, mejor o peor, las señales emitidas desde la atalaya de Ogoño (Ibarrangelua), sin que desde esta última se aprecien las señales de la anterior. Lo mismo sucede con la atalaya de Santa Kruz de Zarautz con respecto a la atalaya de San Anton de Getaria, uno de los puestos atalayeros de más amplio campo visual de la costa.

Otro caso interesante a ese respecto es el sistema atalayero del puerto de Pasai, puerto perteneciente hasta el siglo XIX a la poderosa ciudad de San Sebastián. Los vecinos de Pasai Donibane, barrio situado en jurisdicción de Hondarribia, instalaron su atalaya en el promontorio del monte Jaizkibel que domina la entrada al canal del puerto, en

*Donostiako Mirall talaia,  
Pasai Donibaneko  
talaiatik.*

*Vista de la atalaya del  
Mirall de San Sebastián  
desde la atalaya de Pasai  
Donibane.*



mendiaren bizkarraren eta Plata lurmuturraren kai-mihiaren artean dagoen mendi-lepo batetik zehar. San Pedrokoek, Donostiako jurisdikzioko auzokoek, talaia bat zeukaten Pasaia portuko badiaren barnean, Donibaneko bizilagun lehiakideek egiten zituzten seinaleak ikusi eta transmititu ahal izateko.

## TIPOLOGIA ETA ERAIKUNTZA-EZAU-GARRIAK

Talaien funtzioak azaldu ditugunean, azpimarratu dugu horietako bakoitzak funtzio jakin bat edo batzuk betetzen zituela. Batzuek, nagusiek, mota horretako instalazioen funtzio guztiak betetzen zituzten. Beste batzuek, bigarren mailakoek alegia, lehen aipatutakoek igorritako mezuak transmititu besterik ez zuten egiten. Azkenik, bazeuden hirugarren mota bateko instalazioak talaia-sareetan, hain zuzen ere seinero-postuak. Itsasotik oso gertu egoten ziren, portuen sarreretan, eta horien helburua zen toki horietako nabigazioa zuzentzea eta erraztea. Esan dugun eran, toki

una posición desde la que son observables, a través de un pequeño collado existente entre la loma del monte Ulia y el espolón de la punta de La Plata, las señales emitidas desde la atalaya del Mirall de San Sebastián. Los vecinos de San Pedro, barrio ubicado en la jurisdicción de San Sebastián, en el interior de la bahía del puerto de Pasaia, disponían a su vez de otra atalaya, a fin de observar y retransmitir las señales realizadas desde la atalaya de sus vecinos y contrincantes de Donibane.

## TIPOLOGÍA Y CARACTERÍSTICAS CONSTRUCTIVAS

Cuando hemos descrito las funciones de las atalayas se ha destacado cómo cada una de ellas asumía una o varias funciones diferentes. Algunas, las principales, eran capaces de desempeñar todas las funciones para las que estaban pensadas estas instalaciones. Otras, secundarias, se limitaban a retransmitir las señales emitidas por las primeras.

horiek oso arriskutsuak ziren euskal kostaldeko portuetara iritsi nahi zuten itsasontzientzat.

Eraikuntzari dagokionez, mota askotako eraikuntzak zeuden talaia-sare batean, azpiegitura horiek bilakaera historiko konplexua eta luzea izan baitzuten.

Talaiek egun dituzten eraikuntza-ezaugarriak aztertuz gero, zer bilakaera izan zuten suma dezakegu; hasierako kostaldeko puntu garai xumeetatik hasi (ikuseremu zabala izaten zuten), eta XX. mendean eraikitako hormigoizko eraikin handietara arte (itsasoko behatoki gisa erabiltzen ziren). Hori horrela, talaia-lekuen tipologia interesgarri bat ezar dezakegu horien eraikuntza-ezaugarrietan oinarrituta. Gaingiroki, lau taldetan bana daitezke:

#### I. TALAIA GISA ERABILTZEN ZIREN NATURAKO GORAGUNEA

Harkaitz-muturrak eta bestelako elementu geomorfologikoak dira, talaia gisa erabili direnak. Talaia naturalak dira, eta ez dute ia hobekuntzarik behar eman zaizkien funtzioak betetzeko. Mota horretakoa da, adibidez, Lasuntalai postua, Getariakoa. Izenak adierazten duen bezala (Lasuntalai), lazunen edo korrokoiaren sardak ikustea zen talaia horren funtzio nagusia. Talaia natural horrek harkaitz-mutur bat baliatzen du, Altzakoarria lurmuturraren gainean tente dagoena dorre baten antzera, eta bertatik Getariako Malakorbe badia osoa ikusten da.

Mutur eta goragune horietako batzuk egokituta daude beren funtzioa hobeki betetzeko. Lehenago aipatu dugun Talaimendiko talaia, Zumaiaiko mendi horretako tontorrean dagoenak, hareharrizko bloke bat baliatzen du talaia funtzioak betetzeko. Blokeak

Finalmente un tercer tipo de instalaciones integradas en las redes de atalayas, los puestos de señeros ubicados muy cerca del mar en los accesos de los puertos, tenían como objetivo dirigir y facilitar la navegación en esos emplazamientos, como ya sabemos, tan problemáticos y peligrosos para las embarcaciones que se aproximaban hasta ellos con intención de fondear en los diversos puertos de la Costa Vasca.

Desde el punto de vista constructivo también se observa una gran variedad, que conviene destacar, en las distintas edificaciones que podían componer una red atalayera, resultado de la compleja y larga evolución histórica de estas infraestructuras. Haciendo un repaso por las características constructivas que actualmente presentan las atalayas podemos hacernos una idea de su evolución,

*Getariako Lasuntalai, Altzakoarriako lurmuturraren tontorreko itsaslabarrean.*

*Lasuntalai de Getaria, ubicada en el farallón de la cumbre del cabo de Altzakoarria.*



zulo batzuk ditu, seinaleak igortzeko ikurri-  
nak jartzeko erabiliko zirenak ziurrenik.

Mota horretako talaia naturaletan egin  
ohi zen egokitzapen arruntenetakoa zen ta-  
laiariak babesteko eraikuntzak egitea horie-  
tatik gertu. Normalean, eraikuntza suntsiko-  
rrak ziren, esate baterako zurezko etxolak  
edo estalpeak. Egun, ia ez da etxola horien  
arrastorik ikusten, zimendatzearen arrasto-  
ren bat ez bada.

Mirall talaiari dagokionez (Donostiako  
Ulía mendiaren tontorreko harkaitz handie-  
tan dago), talaia natural horiek egokitzeko  
gutxieneko lan horiek baino gehiago egin zi-  
tuzten. Talai gisa erabiltzeko oso egokiak dira  
harkaitz-mutur hauek, dorre modura altxea-  
tzen baitira inguruko lurrarekiko. Halere,  
ezaugarri natural horiek aldatu egin zituzten  
beren funtzioa hobeto bete ahal izateko.

*Zumaia*ko Talaimendiko talaiako harri-blokea.  
*Bloque de piedra de la atalaya de Talaimendi de Zumaia.*



desde sus modestos orígenes como simples  
puntos prominentes de la costa que abarcan  
un gran campo visual, hasta los imponentes  
edificios de hormigón contruidos en el siglo  
XX a manera de observatorios marítimos.  
Se puede así establecer una interesante ti-  
pología de los emplazamientos atalayeros en  
función de sus características constructivas  
dividida, a grandes rasgos, en cuatro grandes  
grupos:

#### I. PROMINENCIAS NATURALES USADAS COMO ATALAYA

Se trata de afloramientos rocosos y  
otros elementos geomorfológicos destaca-  
dos que han sido aprovechados como esta-  
blecimientos atalayeros. Constituyen atalayas  
naturales que apenas precisan de mejoras  
para que cumplan las funciones para las que  
han sido seleccionados. Es lo que sucede con  
el puesto de Lasuntalai, de Getaria. Su nom-  
bre significa, literalmente «atalaya para albu-  
res», siendo su principal función la detección  
de los bancos que forman estos peces. Esta  
atalaya natural aprovecha un afloramiento  
rocoso que se yergue a modo de torreón  
sobre el cabo de Alzakoarria, dominando la  
bahía de Malkorbe de Getaria.

Estos afloramientos y prominencias  
aparecen en ocasiones acondicionados para  
que cumplan mejor su cometido. La mencio-  
nada atalaya de Talaimendi de Zumaia, situada  
en la cumbre del mismo monte, aprovecha  
un bloque de piedra arenisca para las funcio-  
nes atalayeras. El bloque presenta diversas  
oquedades, probablemente usadas para la  
instalación de las banderas que se solían em-  
plear para emitir señales.





*Donostiako Mirall talaiaaren xehetasunak.*

*Detalles de la atalaya del Mirall de San Sebastián.*

Horrela, bideak eta eskailerak eraiki zituzten horien inguruan, tontor horietara erraz iritsi ahal izateko, eta horma-mailak jarri zitzaizkien azken horiei, azalera horizontala izan zezaten, bai eta alboko barandak ere, harrian zizelkatutako eskailera horiek seguruagoak izan zitezen. Azaleratze handi horietan, gainera, etxolak eraiki ziren, harkaitzaren kontra jarrita, bai eta zati bat zizelkatuta ere. Talaia natural hori egokitzeko lanen arrasto garbiak daude, bai etxolenak, bai bertara iristeko eskailerenak eta bideenak, bai eta eraikuntza horiek guztiak zimendatzeko eta eusteko harkaitzetan egindako zizelkadurenak ere. XX. mendearen hasieran, turismoari zegokionez Donostiak izandako garai hoberean, talaia berreskuratu egin zen elementu erromantiko gisa, Uliara joaten ziren udatiarrek goza zezaten. Horrela, zenbait lan egin ziren, talaia jatorrizko itxura aldatu zutenak; horregatik, gaur egun zaila da jakitea zein diren jatorrizko zatiak eta zein ondorengoak.

Una de las modificaciones más habituales en esta clase de atalayas naturales es la edificación de refugios para los atalayeros en las cercanías de las mismas. Se trata, por lo general, de construcciones efímeras, como cabañas o cobertizos de madera. Apenas son perceptibles en la actualidad vestigios de estas cabañas salvo algún resto de su cimentación.

El caso de la atalaya del Mirall situada en las grandes peñas de la cumbre del monte Uliá de San Sebastián implica un paso más allá de esas ínfimas obras de modificación de las atalayas naturales. Se trata de unos afloramientos rocosos muy adecuados para las funciones atalayeras pues se elevan a modo de verdaderas torres sobre el terreno circundante. Sin embargo de esas óptimas características naturales fueron modificadas para adecuarlas aún más a su cometido. Así se construyeron en torno a ellas caminos y escaleras de acceso a las cumbres sobre las que se elevan que fueron retalladas para que presentaran una superficie horizontal y



## 2. BESTE ERAIKUNTZA BATZUEN ERABILERA TALAIA FUNTZIOTARAKO

Talaia bat jartzeko oso azpiegitura sinplea behar zen, orain arte esan duguna aintzat hartuz gero pentsatzekoa den eran. Horregatik, mendeetan zehar, beste azpiegitura batzuk (baserriak, tenpluak eta gotorlekuak) erabili ziren talaiarien betebeharrak asetzeko; batez ere, eguraldi txarretik babesteko beharra zegoen. Ez da erraza jakitea ea toki horiek talaia gisa erabiltzen ziren azpiegitura horiek eraiki baino lehen, edo eraikuntza horiek aurretik zeudela-eta erabaki ote zuten toki horiek talaia gisa erabiltzea, eraikuntzek talaiarien lanak erraz zitzaketelako edo beste arrazoi batzuegatik.

Kasu batzuei dagokienez, jasota geratu da aurretik zeuden eraikuntzak erabili zirela talaia bat edo seinero-postu bat jartzeko. San Inazioko edo Galea lurmuturreko gotorlekuak, biak Getxon daudenak, talaia-instalazio handiak jartzeko erabili ziren XVIII. mendean. Horien artean, nabarmentzekoa da Galea lurmuturreko gotorlekuan oraindik zutik dagoen dorre izugarria.

Dirudienez, gaztelu zaharren hondakinak erabili ziren Pasai San Pedroko talaia jartzeko. Edonola ere, talaia-funtzioekin lotutako beste gotorleku batzuei dagokienez, arrastoek adierazten dute beranduago eraikiak izan zitezkeela; adibidez, Lekeitioko Santa Katalinakoa, Talako San Juangoa eta San Nikolas edo Garraitz uhartekoa, edo Mundakako Santa Katalinakoa.

a las que se añadieron barandillas laterales para hacer más seguro el acceso a través de esas escaleras esculpidas sobre la piedra. Esos grandes afloramientos se aprovecharon también para construir cabañas, apoyadas y talladas en parte en la misma roca. De todas estas obras de modificación de la atalaya natural quedan indicios claramente visibles tanto de las cabañas, escaleras y caminos de acceso, así como de los numerosos entalles practicados sobre las rocas, destinados a cimentar y sujetar todas esas construcciones. A principios del siglo XX, durante la edad de oro del turismo de San Sebastián, se recuperó la atalaya como un elemento romántico para que disfrutaran de sus instalaciones los veraneantes que acudían a Ullia. Así fue como se acometieron numerosas obras que desfiguraron notablemente la atalaya original, de

*Donostiako Mirall talaiaren xehetasunak.*

*Detalles de la atalaya del Mirall de San Sebastián.*





*Galea lurmuturreko talaia eta gotorlekua.*

*Atalaya y fuerte de Punta Galea.*

Baliteke inguruan azpiegiturak eta eraikuntzak jarri baino lehenagotik erabiltzea espazio jakin batzuk, eta ondoren eman izatea talaia-funtzioren bat. Badaude hiru baserri «Talai» edo «Talaia» izena dutenak; horrek aurreko hipotesia indartzen du. Barrikan, Hondarribian eta Orion daude hiru baserri horiek. Hiru baserri horiei dagokienez, garbi dago nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen horiek funtsezko elementu izan zirela zegozkien talaietarako; izan ere, baserriar horiek talaiari-funtzioak ere betetzen zituzten, beren nekazaritza- eta abeltzaintza-lanak egiteaz gain. Baserriei izen hori eman izateak, agian, adieraz dezake baserria eraiki baino lehenagokoa zela talaia. Aipatutakoez gainera, beste baserri bateko baserriarrek ere betetzen zituzten talaiari-funtzioak, hain zuzen ere, Gorlizko Kukuluko baserrikoek.

Halere, talaia-funtzioak betetzeko baliatutako eraikuntzei dagokienez, eraikin erlijiosoak erabili ziren batez ere. Hona hemen adibide adierazgarrienak: Izaro komentua eta Talaiako Santa Maria (Bermeo), Talako ermita (Ea), San Anton (Getaria), Talako San Juan eta Antzoritzeko Santa Katalina (Lekeitio),

manera que a día de hoy es difícil discernir las partes originales de las recreaciones posteriores.

## 2. APROVECHAMIENTO DE OTRAS CONSTRUCCIONES PARA LAS FUNCIONES DE ATALAYA

Las infraestructuras necesarias para la instalación de una atalaya eran muy sencillas, tal como se puede deducir de lo dicho hasta aquí. Este hecho ha facilitado que durante siglos se hayan usado otras infraestructuras (caseríos, templos y fortificaciones) para cubrir las necesidades de los atalayeros, especialmente de refugio frente a las inclemencias meteorológicas. No es tarea fácil en todos los casos establecer si el uso de los emplazamientos atalayeros es anterior a la construcción de estas infraestructuras, o si la

*Antzoritzeko Santa Katalina basilizako hormen pareko bateria, Lekeitio.*

*Batería frente a los muros de la ermita de Santa Katalina de Antzoritz, en Lekeitio.*



*Mundakako bateria eta Santa Katalina basiliza.  
Bateria y ermita de Santa Katalina de Mundaka.*

Santa Katalina (Mundaka), Sokorroko Andre Mariaren Basiliza (Muskiz), San Nikolas (Mutriku), Santa Klara (Ondarroa) eta San Nikolas begiratokia (Orio).

Berriz ere, gure buruari galde diezaiokegu bi funtzio horietatik, erlijioso edo itsasoa behatzekoa, zein izan zen lehena; gure ustez talaia zeuden leku horietan, ondoan eraikin erlijiosoak eraiki baino lehenagotik. Hori ondorioztatzen da, adibidez, Bermeoko parroquia zaharraren izenetik: Talaiako Santa Maria, 1310ean aipatua.

Ziurrenik, toki horiek espazio sakratutzat joko ziren talaia gisa erabiltzen hasi eta beranduago. Zenbait arrazoi egon daitezke toki horiek gurtza-toki bihurtzeko. Lehenik eta behin, esan daiteke espazio jakin bat



selección de los emplazamientos atalayeros se hizo como consecuencia de la existencia previa de estas construcciones que podían servir para facilitar las tareas del atalayero o por otras razones distintas.

En algunos casos hay constancia del uso de construcciones anteriores para la instalación de una atalaya o un puesto de señeros. Es el caso de los fuertes de San Ignacio o el de Punta Galea, ambos situados en Getxo, que en el siglo XVIII fueron usados para establecer sendas instalaciones atalayeras, entre las que cabe destacar la imponente torre que aún subsiste en el último de ambos fuertes.

Parece que para la instalación de la atalaya de Pasai San Pedro se aprovecharon los restos del antiguo castillo. Sin embargo, en el caso de otras fortificaciones relacionadas con las funciones atalayeras los indicios



*Barrikako Talaia baserria.  
Casería Talaia de Barrika.*



*Talaiaaren xehetasuna eta Mutrikuko San Nikolas basiliza.  
Detalle de la atalaya con la ermita de San Nikolas de  
Mutriku.*

sakratu egiteko elementu sakraturen bat jartzen zela bertan –seinaleztatzeko prozedura arrunta zen hori–, itsasoko langileentzat erreferentzia izan zedin. Adibidez, egurrezko gurutze bat egon zen Zarauzko Santa Kruzeko talaian XX. mendearen hasierara arte. Bakioko talaian, Talaie lurmuturrean dagoeanean, hareharrian landutako gurutze interesgarri bat dago oraindik.

Bigarrenik, talaia-funtzioei behar bezala eta merke arreta emateko, oso eraginkorra zen eraikin erlijioso bat eraikitzea, basilizak gehienetan. Hain zuzen ere, badakigu eraikin erlijioso bat gertu zeukaten talaietako askotan tenplu horietako lekaideek egiten zutela lan. Adibidez, Izaion, bertako komentuko komunitate erlijiosoko kideek betetzen zituzten talaiari-funtzioak. Horren antzera, Getariako San Anton talaian, bertako ermitauak egiten zuen lan hori.

Tokiko arrantzaleen eta marinelen debozioa izango litzateke talaien lurrak eta instalazioak sakratu egiteko hirugarren eta

disponibles sobre ellas dan a entender que pudieron ser construidas más tarde; tal es el caso de las que existen en Santa Katalina, San Juan Talako y la isla de San Nikolas o Garraitz de Lekeitio, o en Santa Katalina de Mundaka.

Es probable que el uso de determinados espacios sea anterior al establecimiento de otras infraestructuras y edificaciones en su entorno inmediato y que posteriormente se les haya asignado determinado papel dentro de los quehaceres atalayeros. Esta hipótesis se refuerza ante el hecho de la existencia de hasta tres caseríos llamados «Talai» o «Talaia». Se trata concretamente de los emplazados en Barrika, Hondarribia y Orío. En los tres casos es evidente que esas explotaciones agropecuarias constituyeron un elemento esencial de sus respectivas atalayas, ya que sus ocupantes, además de sus labores agrícolas y ganaderas, ejercían las funciones de atalayero. El que adquiriesen esa denominación es indicativo, quizás, de que la atalaya fuese anterior a la construcción de los

*Bakioko talaiaiko gurutzea.  
Cruz de la atalaya de Bakio.*







*Getariako San Anton talaia eta basilizaren aurriak.  
Atalaya y ruinas de la ermita de San Anton de Getaria.*

azken arrazoia. Itsasgizonek ingurune eze-gonkor eta arriskutsu batean irabazi behar izan zuten beren bizimodua mendeetan zehar, eta beti bilatu izan dute Ama Birjinaren eta zenbait santuren babes; horiek, hainbat arrazoi direla eta, debozio handia piztu dute itsasgizonengan.

Talaiak eta seinero-postuak oso lotuta zeuden marinelen segurtasunarekin eta ongi-zatearekin; beraz, ez da harritzekoa horietako asko sakratu egin izatea, horien babes-eragina

caseríos. Además de los mencionados, otro caserío cuyos habitantes ejercían funciones de atalayero es el llamado Kukulú, en Gorliz.

Sin embargo el caso más frecuente de aprovechamiento de otras construcciones para las funciones de atalaya es el que implica la asociación de esas instalaciones con edificios de carácter religioso. Los ejemplos más significativos son los siguientes: el convento de Izaro y Santa María de la Atalaya (Bermeo), Talako ermitea (Ea), San Anton (Getaria), San Juan Talako y Santa Katalina de Antzoritx (Lekeitio), Santa Katalina (Mundaka), Nuestra Señora del Socorro (Muskiz), San Nikolas (Mutriku), Santa Klara (Ondarroa) y el mirador de San Nikolas (Orio).

De nuevo puede resultar oportuno plantear la cuestión sobre cuál de ambas funciones, la religiosa o la de puesto de observación del mar, se da en primer caso y también de nuevo nos debemos decantar por la primera de las opciones, es decir, las atalayas serían anteriores a los edificios religiosos anexos a ellas. Es lo que se puede deducir, por ejemplo, de la denominación de la antigua parroquia de Bermeo: Santa María de la Atalaya, ya citada en 1310.

*Pobeñako Sokorroko Andre Mariaren basiliza (Muskiz).*

*Ermita de Nuestra Señora del Socorro de Pobeña (Muskiz).*







*Orioko San Nikolas begiratokia.  
Mirador de San Nikolas de Orio.*

handiagotzeko. Beste batzuen artean, azpimarratzekoa da Sokorroko Andre Mariaren talaia eta basiliza, Barbadun ibaiaren ibai-ahoa dagoena, Pobeñan (Muskiz). Antzina, arrantzaleak horren oinetan gelditzen ziren, eta tenplura sartzen ziren oititz egin eta Ama Birjinaren babesa eta laguntza eskatzeko beren eguneroko lanari ekin baino lehenago.

Probablemente, estos emplazamientos fueron convertidos en espacios sacralizados también con posterioridad a su uso como atalaya. La transformación de estos espacios en lugares de culto puede deberse a varias causas. En primer lugar podría destacarse la sacralización del espacio mediante el establecimiento de algún elemento de carácter sagrado –procedimiento de señalización muy usual– a fin de que sirvan de referencia visual a los trabajadores del mar. Es el caso de la atalaya de Santa Kruz de Zarautz, donde hacia principios del siglo XX todavía se levantaba una cruz de madera. Otro caso interesante es el de la atalaya de Bakio, situada sobre la punta de Talaípe, donde existe aún una cruz labrada en piedra arenisca.

En segundo lugar, la construcción de un edificio religioso, una ermita en la mayoría de las ocasiones, ha constituido durante siglos un procedimiento muy efectivo para atender correctamente, y a bajo costo, las funciones de las atalayas. Efectivamente, consta que muchas de las atalayas que contaban con un edificio religioso cercano eran atendidas por los religiosos vinculados a dichos templos. Por ejemplo, en Izaro los miembros de la comunidad religiosa asentada en su convento eran quienes ejercían las funciones atalayeras. De manera similar, la atalaya de San Anton de Getaria estaba atendida por su ermitaño.

Como tercera y última causa de esa sacralización del terreno y las instalaciones dedicadas a atalayas, hay que tener en cuenta la devoción de los pescadores y marineros locales. Obligados a ganarse la vida en un medio inestable y peligroso durante siglos, los trabajadores del mar han procurado la protección de la Virgen y de santos que, por

### 3. OTOITZ EGITEKO ETA TALAIA-FUNTZIOETARAKO ESPAZIOAK BILTZEN ZITUZTEN TENPLUAK

Beren inguruan eraikin erlijioso bat duten talaiekin lotuta daude hauek. Barruti berean biltzen ziren kulturako zati bat eta talaia-funtzioetarako beste bat. Mota horretako eraikin gutxi daude, baina aipatzeko modukoak dira, oso bereziak direlako. Gipuzkoan horrelako eraikin bakarra dago, San Nikolas parrokiako begiratokia. Harkaitzezko itsaslabar baten ondoan dago eliza hori, eta kala bat dago horren oinetan, gaur egun lohiz beteta dagoena; iraganean Orioko portua egon zen bertan. Ziurrenik itsaslabar hori «begiratoki» edo talaia gisa erabiliko zen, XVI. mendean gaur egun arte iraun duen eliza handia eraiki zen arte, lehengoa baino askoz ere handiagoa. Eliza berria eraikitzean, estali egin zen itsaslabarrak izandako ikuspegia. Horregatik, eliz atari perimetralaren iparraldeko ertzean

*Lekeitioko Talako San Juan.  
San Juan Talako de Lekeitio.*



*Eako Talako ermitea.  
Talako ermitea de Ea.*

diversas razones, han contado con una especial devoción entre ellos. Siendo las atalayas y puestos de señeros unas infraestructuras estrechamente vinculadas con la seguridad y el bienestar de los marineros no es de extrañar que muchas de ellas hayan sido sacralizadas en un afán de incrementar aún más su influjo protector. Entre otros, cabe citar el ejemplo de la atalaya y ermita de Nuestra Señora del Socorro, situada en la desembocadura del río Barbadun, en Pobeña (Muskiz). Antaño, los pescadores se detenían a su pie y accedían al templo para rezar sus oraciones e invocar la protección y la ayuda de la Virgen antes de atender a su faena diaria.

### 3. TEMPLOS QUE AGLUTINAN ESPACIOS DEDICADOS AL CULTO Y A ATALAYA

Muy vinculados con las atalayas que cuentan en sus inmediaciones con un edificio religioso, cabe destacar otro tipo de conjuntos en los que se integran en un mismo recinto una parte destinada al culto y otra dedicada a realizar las funciones de atalaya. No son muchos los edificios de este tipo, pero cabe



*Getariako San Anton talaiaiko dorrea.  
Torre de la atalaya de San Anton de Getaria.*

*Itziarko talaiaiko dorrea.  
Torre de la atalaya de Itziar.*

begiratoki bat eraiki zen, kubo edo dorre zirkular handi baten antzekoa; Kale Nagusiaren sarrera gailenduz, garai batean, barra edo Oriaren ibai-ahoa behatzen zen bertatik.

Bizkaia-ri dagokionez, bi kasu aipatuko ditugu: Lekeitioko Talako San Juan, eta Eako Talako ermitea. Bi eraikinak eraikuntza-tipologia berekoak dira; baseliza xume bat, bere oinetan, sarreraz gain, talaia-funtzioak betetzen dituen eliz atari bat duena. Mota horretako eliz atariak, hain zuzen ere, behatoki xumeak dira, eta talaia-erietan babes emateko ere balio dute. Eako Talako ermiteari dagokionez, eliz ataria iparralderantz irekitzen da, eta karela bat dauka eguraldi txarretik babesteko. Babes-helburu berarekin, mendebaldeko horma itsua da. Barnealdean, harrizko eserlekuak dauzka otoi-tz-gunera sartzeko atearen bi alboetan, bai talaia-erietan esertzeko, bai eta baselizara bertaratzeko ziren fededunak esertzeko ere. Lekeitioko Talako San Juani

citarlos por su singularidad. En Gipuzkoa se cuenta con un único caso, el mirador de la parroquia de San Nikolas. Esta iglesia se ubica junto a un gran farallón rocoso, a cuyo pie se encuentra una cala, actualmente colmatada, que en el pasado albergaba el puerto de Orio. Es probable que este farallón sirviera de «mirador» o atalaya, hasta que en el siglo XVI se construyó la gran iglesia que subsiste hoy día, ampliando por mucho la extensión de la anterior. El edificio de la nueva iglesia anuló por completo la visibilidad que se disfrutaba desde el farallón, de manera que en el extremo norte del atrio perimetral de la iglesia se construyó un nuevo mirador a manera de un gran cubo o torre circular, que domina la entrada de Kale Nagusia y desde el que se observaba en el pasado la barra o desembocadura del río Oria.

En Bizkaia cabe citar dos casos, el de San Juan Talako de Lekeitio y el de Talako ermitea o ermita de Nuestra Señora de la

dagokionez, basiliza honek ere ez du orientazio kanonikoa errespetatzen, eta, beraz, eliz ataria ekialderantz irekitzen da. Behatoki-funtzioa betetzeko, iparraldeko fatxadan bi leihate handi dauzka, arku eskartzanodunak, eta basilizako kanpaia eliz atariaren barnean dago, ziurrenik talaiariak hori erabiltzeko aukera izan zezan. Barnealdean harrizko eserleku handiak dauzka, bata bestaren aurrean, iparraldeko eta hegoaldeko fatxadetan.

#### 4. FABRIKA-TALAIAK

Talaia askotan eraikuntza jakin batzuk jarri ziren espezifikoki eta soilik talaia-funtzioak betetzeko. Eraikuntza horiek hiru multzotan bana daitezke, oro har: dorre zirkularren formako talaiak, alboan talaiariaren etxola dutenak; balkoi formako talaiak, alboan talaiariaren etxola dutenak; eta talaia-funtzioetarako eta talaiariari babesa emateko espazioak biltzen dituzten eraikinak.

Dorre zirkularren formako talaiak izango dira, agian, eraikuntza-mota horien artean zaharrenak. Horietako batzuk Erdi Arokoak dira, ziur asko. Adibidez, Mutrikuko Talaixa talaia; jasota dago 1504rako eraikita zegoela. Dorre zirkularra zen, oinarri sendoa zuena, bai eta goiko zatia ixten eta babesten zuen balkoia ere. Eskailerak edo arrapalak zeuzkaten bertara sartzeko. Batzuetan kare eta harriz landutakoak izaten ziren, eta dorre zirkularren beraren kontra jarrita egoten ziren.

Beste batzuetan eskailera kiribil bat egoten zen dorrearen barruan. Dakigunez, dorre batzuetan labe edo sutegi txikiak egoten ziren, ke-seinaleak igorri ahal izateko, edo eta kanpaik, seinala akustikoak



*Otoioko talaia (Ispaster).*

*Atalaya de Otoio (Ispaster).*

Concepción de Ea. Ambos edificios responden a una misma tipología constructiva consistente en una sencilla ermita con un atrio construido a sus pies, desde el que se accede al edificio y que, a mismo tiempo, cumple las funciones de atalaya. Atrios como éste constituyen, en efecto, un sencillo observatorio, sirviendo la estructura también como caseta de refugio para los atalayeros. En el caso de Talako ermitea de Ea, el atrio se abre al norte y para protegerse de las inclemencias cuenta con un antepecho bajo. Con el mismo fin protector el muro del oeste es ciego. En su interior cuenta con bancadas de fábrica de piedra a ambos lados de la puerta de entrada a la zona de culto, para acomodo tanto del atalayero como de los fieles que acudían a la ermita. En el caso de San Juan Talako de





*Mutrikuko «Talaixaren» irudikapena, XIX. mendean.  
Recreación de «Talaixa» de Mutriku en el siglo XIX.*

igortzeko. Dorrearen alboan, batzuetan dorrearen aurka jarrita, etxola bat egon ohi zen talaia-ria babesteko. Badakigu, era berean, hasieran zurezko azpiegitura xumeak zirela, baina aurrerago –XIX. mendean zehar, gehienean– kare eta harriz egindakoak jarri ziren horien ordean. Mota horretako eraikuntzen hondarrak ikus daitezke oraindik ere Matxitxakoko Talaian (Bermeo), Itziarko Talaian (Deba), San Antonen (Getaria), Otoion (Ispaster), Talaixan (Mutriku) eta Santa Kurutzen (Zarautzen).

Galea lurmuturreko gotorlekuaren (Getxo) barnealdean 1791n eraikitako dorrea berezia da euskal kostaldeko talaia-instalazio guztien artean. Dorre zirkular garaia da, itsasargi baten antzeko ezaugarriak dituen. Eskailera kiribil bat jarri zioten hormen artean goiko zatira iritsi ahal izateko. Goiko zatian zegoen behatokia eta bertatik igortzen ziren seinaleak; balkoi zirkularra zeukan, modiloietan jarrita, eta burdinazko kareladuna.

Lekeitio, la ermita tampoco respeta la orientación canónica, abriéndose el atrio hacia el este. A fin de cumplir con su misión de observatorio, en su fachada norte dispone de sendos ventanales de arco escarzano, y la campana de la ermita se halla en el interior del mismo atrio, probablemente, para facilitar su uso por el atalayero. Cuenta en su interior con sendos bancos de fábrica de piedra, dispuestos uno frente al otro, en las fachadas norte y sur respectivamente.

#### 4. ATALAYAS DE FÁBRICA

Muchas atalayas fueron dotadas de construcciones específicas y exclusivamente destinadas para la realización de sus funciones. Estas construcciones se pueden clasificar a grandes rasgos en tres conjuntos: Atalayas en forma de torre circular con caseta de atalayero anexa, atalayas en forma de balconadas con caseta de atalayero anexa y edificios que aglutinan espacios destinados a atalaya y a refugio del atalayero.



*Galea lurmuturreko talaia dorrea.*  
*Torre de la atalaya de Punta Galea.*

Galea lurmuturrekoak ez bezala, beste batzuek balkoi bat soilik zeukaten. Bigarren mailako instalazioak ziren gehienak, eta talaia nagusietatik igorritako seinaleak berriz igortzeko bitarteko puntuak ziren –Mutrikuko San Nikolas talaia bezala–, edo seinero-postu bezala erabiltzen ziren. Horrelakoak ziren, adibidez, Algortako Riberamuneko Petrila (Getxo), edo Zarauzko Santa Kurtz; horietan, dorre zirkularraz gainera, neurri desberdineko bi balkoi daude. Horiek guztiak oin zirkularra dute, Riberamuneko Petrilak izan ezik, eta karez eta harriz egindako karela daukate.

XIX. mendean zehar, zenbait eraikin egin ziren, behaketarako espazioa eta talaia-riaren gela biltzen zituztenak. Hasiera batean, karez eta harriz egindako eraikuntza xumeak ziren, leihate handiak zituztenak itsasoari begira;

Las atalayas en forma de torre circular son, quizás, las más antiguas de todas estas edificaciones. Algunas de ellas pueden datarse en época medieval. Sería el caso de la atalaya de Talaixa de Mutriku, que consta como ya edificada en el año 1504. Consistían en una torre circular con base maciza y una balconada que cerraba y protegía la parte superior. Para acceder a ella disponían de escaleras o de rampas. Según los casos, en ocasiones estaban labradas en fábrica de cal canto, apoyadas en la propia torre circular. En otras ocasiones contaban con una pequeña escalera de caracol que discurría por el interior de la torre. Se sabe, también, que algunas de estas torres estaban dotadas de pequeños hornos o fogones para emitir señales de humo o de campanas con las que poder enviar señales acústicas. A su lado, en ocasiones apoyada en la propia torre, contaban con una caseta para refugio del atalayero. Se sabe que en origen eran sencillas infraestructuras de madera, que posteriormente –por lo general durante el siglo XIX– fueron sustituidas por otras de fábrica de cal y canto. Perduran aún restos de edificaciones de este tipo en atalayas como Talaia de Matxitxako (Bermeo), Talaia de Itziar (Deba), San Anton (Getaria), Otoio (Ispaster), Talaixa (Mutriku) y Santa Cruz (Zarautz).

Un tipo de torre realmente único entre las instalaciones atalayeras de la Costa Vasca es la construida en 1791 en el interior del fuerte de Punta Galea (Getxo). Se trata de una elevada torre circular que se asemeja en todas sus características a las de un faro. Se la dotó de una escalera de caracol que discurría intramuros para dar acceso a su parte superior, donde se ubicaba la zona



*Zarauzko Santa Kruz talaiaiko balkoia.  
Balconada de la atalaya de Santa Kruz de Zarautz.*

horrelakoak ziren Mutrikuko Talaixa eta Pasaiaiko Talaia. XX. mendean, eraikin horien eraikuntza-ezaugarriak hobetu egin ziren pixka bat, benetako behatokien antza emateko asmoz. Horrelakoak ziren Matxitxakoko Talaia (Bermeo), Algortako Riberamuneko Petrila (Getxo), Otoio (Ispaster) eta Santa Klara (Ondarroa). Beste batzuen profil arkitetkonikoa itsasontzi baten aginte-zubi baten antzekoa zen; horrelakoak ziren Zumaiaiko Farolako talaia eta Mutrikuko Talaixa. Azken hori hormigoizkoa zen.

destinada a observatorio y a la emisión de señales, compuesta por una amplia balconada circular; apoyada sobre modillones y con antepecho de hierro.

Las atalayas que, a diferencia de lo que ocurre con la de Punta Galea, se reducen a una simple balconada son, en general, instalaciones secundarias, destinadas a servir de puntos intermedios para la retransmisión de señales emitidas por las atalayas principales – tal y como sucede en el caso de la atalaya de San Nikolas de Mutriku– o para servir como puesto de señeros, como ocurre en los casos del Pretil de Riberamune de Algorta (Getxo) o de Santa Kruz de Zarautz, donde, además de una torre circular, existen dos balconadas de distinta envergadura. Todas ellas son de planta semicircular, salvo la del Pretil de Riberamune, y están dotadas de un antepecho de fábrica de cal y canto.

*Matxitxakoko talaia.  
Atalaya de Matxitxako.*





Zumaiako Farolako talaia.  
Atalaya de la Farola de Zumaia.

Durante el siglo XIX se construyeron edificios que aunaban espacios destinados a observatorio con otros que servían para habitación del atalayero. En principio eran sencillas construcciones de cal y canto con amplios ventanales que dominaban el mar, como es el caso de las atalayas de Talaixa de Mutriku y Talaia de Pasaia. Ya en el siglo XX, las características constructivas de estos edificios mejoran algo más, tratando de imitar a verdaderos observatorios. Es el caso de las atalayas de Talaia de Matxitxako (Bermeo), Pretil de Riberamune de Algorta (Getxo), Otoio (Ispaster) o Santa Klara (Ondarroa). En otras ocasiones su perfil arquitectónico imita el puente de mando de una embarcación, como ocurre en el caso de la atalaya de la Farola de Zumaia o en la de Talaixa de Mutriku. Ésta última, por cierto, construida en hormigón.

## TXANGOAK GURE TALAIETAN ZEHAR


*Txangoak egiteko bi ibilbide proposatuko ditugu, gure talaien aztarnak ardatz hartuta; bat Bizkaiko kostaldetik zehar, eta bestea, berriz, Gipuzkoako kostaldetik. Gure kostaldeko talaia interesgarrienak zuzenean ezagutzeko aukera emango digute bi ibilbide horiek.*

## EXCURSIONES POR NUESTRAS ATALAYAS

*Proponemos dos posibles itinerarios para realizar excursiones en las que los restos de nuestras atalayas sirvan como eje. Uno a través de la geografía costera de Bizkaia y otro sobre la de Gipuzkoa. Ambos nos garantizan conocer de primera mano algunas de las más interesantes atalayas de nuestra costa.*



# MUNDAKA-BERMEO-BAKIO





Mundakako itsasadarreko azkeneko zatian hasten da txango hau. Hortik, Bermeoko portuaren inguruko badia zabaletik egin behar da aurrera Matxixako lurmuturrera arte.

Lurmuturra pasatutakoan, kostalde mal-kartsutik jarraituko dugu Bakioko hareatzetara arte; horixe izango da lehenengo ibilbide honen amaiera-puntua. **Mundaka**, gure abiapuntua, itsasoko elizateen prototipoa da, eta Oka ibaiaren ibai-ahoko portu natural txiki batean dago. Herri honi buruzko lehenengo erreferentzia historikoak XI. mendekoak dira. Alabaina, askoz ere lehenago antolatu zen espazioa ingurune horretan guztian. Frogatuta dago erromatarren garaian hasi zela antolatzen jada, Foruko kokalekua ezarri zenean. Jatorrizko herrigune horrek lotura handia zuen itsasoarekin, eta hala erakusten dute Portuondoko gertuko portuan aurkitutako erromatarren aztarnak. Mundakako herritarrek mendeetan zehar arrantzatu zuten inguruko arrantza-toki jorietan. Era berean, egiaztatuta dago, baita ere, itsaso bidezko merkataritza—eta garraio-espeditzioetan parte hartu zutela urrutiko uretan. Gaur egun, arrantza-sektorea soilik da garrantzitsua Mundakan, eta turismoa da gehien lantzen den jarduera.

Bi jarduera horiek —arrantza eta turismoa— osagarriak dira elkarren artean. Izan ere, herri hau ikustera etortzen direnentzat, arrantzaleen etxeen gunea da gauza erakar-garrietako bat, Mundakako portu natura-

Esta excursión debería iniciarse en el tramo final de la ría de Mundaka. Desde ahí se debería avanzar por toda la amplia ensenada en que se ubica el puerto de Bermeo hasta el cabo Matxixako.

jardueretarako. Horregatik, ontzigitza izan zen Oriaren ibaiertzetan mendeetan zehar egindako jarduera garrantzitsuena. Orioko arrantzaleak, berriz, ozeanoz haraindiko baleen harrapaketatik parte hartzearengatik gailendu ziren. Hala eta guztiz ere, baxurako arrantzan jarduten zuten arrantzaleei ostatu emateaz gainera, Orioko portutik ateratzen zen Oriaren behealdeko arroko burdinola ugarietan ekoiztutako burdina. Talaia baten funtzioez gainera, seinero-postu baten funtzioak ere betetzen zituen, barrako nabigagarritasun-baldintzak zaintzen baitzituen. Martín Bermejok adierazten duenez, 1915era arte, «eran los pescadores que iban todos los días a los montes» seinero-talaiari, eta kearen bidez adierazten zuten arrain-sardak non zeuden. Beste alde batetik, Rubio Ardanazek ahozko lekukotasunak bildu ditu, eta, horiek adierazi dutenez, arrain-sardak non zeuden adierazteko, gizon bat bidaltzen zen «al monte con dos banderas». Talaia honetatik igorritako seinaleak ezin dira zuzenean Oriotik ikusi, beraz, jasota geratu da Amezti menditik igortzen zirela berriz ere ikurrinen bidez. Oriaren ibai-ahoaren beste aldean dago Amezti mendia, Aiako jurisdikzioan.

#### BIBLIOGRAFIA

MARTÍN BERMEJO (Itsas-memoria 3, 2000); RUBIO ARDANAZ (Itsas-memoria 3, 2000, 514. or.).

actividades marítimas en Orio, de manera que la actividad más importante desarrollada durante siglos en las riberas del Oria fue el de la construcción naval, mientras que los pescadores de Orio destacaron por su participación en pesquerías transoceánicas de ballenas. Con todo, además de albergar a los pescadores dedicados a la pesca de bajura, el puerto de Orio era la puerta de salida del hierro producido en las numerosas ferrerías de la cuenca baja del Oria. Sus funciones, además de las específicas de una atalaya, se combinaban con las de un puesto de señero que vigilaba las condiciones de navegabilidad de la barra. Martín Bermejo señala que hasta 1915 el señero-atalayero, «eran los pescadores que iban todos los días a los montes», señalaba con humo la situación de los bancos de pesca. Por otro lado, Rubio Ardanaz recoge testimonios orales indicando que para señalar la posición de los bancos de pesca, se envía a un hombre «al monte con dos banderas». Las señales emitidas desde esta atalaya no son visibles directamente desde Orio, de manera que existe la constancia de que eran retransmitidas mediante banderas desde el monte Amezti, que se levanta en la orilla opuesta de la desembocadura del Oria, en jurisdicción de Aia.

#### BIBLIOGRAFÍA

MARTÍN BERMEJO (Itsas-memoria 3, 2000); RUBIO ARDANAZ (Itsas-memoria 3, 2000, p.514).

IZENA NOMBRE		<b>MIRADOR (SAN NIKOLAS PARROKIA)</b>	FTXA ZENBAKIA FICHA NÚMERO	<b>ORI-36</b>
LURRALDEA TERRITORIO		<b>GIPUZKOA</b>	HIRIGUNEA MUNICIPIO	<b>ORIO</b>
BESTE IZENA OTRO NOMBRE				
AUZOA BARRIO		<b>ALDE ZAHARRA</b>	KALEA CALLE	<b>KALE NAGUSIA</b>
X	<b>570874</b>	Y	<b>4792069</b>	Z <b>6</b>
KRONOLOGIA CRONOLOGÍA		<b>Erdi Aro Ondokoa Postmedieval</b>	MENDEA SIGLO	
ERAIKUNTZA DATA FECHA DE CONSTRUCCIÓN		ANTE QUEM DATA FECHA ANTE QUEM	<b>1599</b>	



#### BERTARA IRISTEKO

Orioko parrokiako eliz ataritik dorre edo kubo batera sartzen da, eta Orioko Kale Nagusiaren sarrera ikusten da bertatik.

#### DESKRIBAPENA

Dorre edo kubo bat da, eta Orioko San Nikolas parrokiaren azpiko horma perimetralaren gainean eraikita dago. Kubo hori, oinplano zirkularra duena, Oriaren ibilguren gainaldean aurrera ateratzen da begiratoki baten antzera, eta, iraganean, Kale Nagusiaren hasiera babes-ten zuen ur-bazterretik.

#### HISTORIA

1599ko ekainaren 21eko Errege Probisio batean, bai eta horrekin lotutako beste agiri batzuetan, Imazek transkribatu dituenetan, aipatzen da «...el cimiterio e mirador de la iglesia parroquial desta villa de Oriu...». Begiratoki hori, tarteka babes-funtzioak ere betetzen zituen hori, funtsezkoa zen talaiatik igorritako eta Ameztitik helarazitako seinaleak Orioko portu zaharrera helarazteko. Hegoaldeko senaia txikian zegoen portu zaharra, San Nikolas parrokiaren azpiko harkaitz-azaleratze handiaren babesean. Oriu ibaiaren bidea eta horren itsasoko ibai-ahoa soilik ikusten dira bertatik.

#### BIBLIOGRAFIA

IMAZ (1944).

#### ACCESO

Se accede desde el atrio de la parroquia de Oriu hasta un torreón o cubo que domina la entrada de la Kale Nagusia de Oriu.

#### DESCRIPCIÓN

Se trata de un torreón o cubo, construido en el muro perimetral sobre el que se levanta la parroquia de San Nikolas de Oriu. Dicho cubo, de planta circular; se adelanta a modo de mirador sobre el cauce del Oriu y en el pasado protegía el arranque de Kale Nagusia desde la orilla del agua.

#### HISTORIA

En una Real Provisión del 21 de junio de 1599 y otros documentos asociados transcritos por Imaz se menciona «...el cimiterio e mirador de la iglesia parroquial desta villa de Oriu...». Este mirador; además de eventuales funciones de defensa era indispensable para hacer llegar las señales emitidas desde la atalaya y retransmitidas desde Amezti, al antiguo puerto de Oriu, ubicado en la pequeña cala meridional, al socaire del gran afloramiento rocoso sobre el que se ubica la parroquia de San Nikolas. Su campo visual se reduce al curso del río Oriu y su desembocadura en el mar.

#### BIBLIOGRAFÍA

IMAZ (1944).



IZENA NOMBRE	<b>TALAIIA</b>	FTXA ZENBAKIA FICHA NÚMERO	<b>PAS-17</b>
LURRALDEA TERRITORIO	<b>GIPUZKOA</b>	HIRIGUNEA MUNICIPIO	<b>PASAIA</b>
BESTE IZENA OTRO NOMBRE			
AUZOA BARRIO	<b>DONIBANE</b>	KALEA CALLE	<b>BONANZAKO PASEALEKUA</b>
X	<b>587288</b>	Y	<b>4798806</b>
Z	<b>94</b>		
KRONOLOGIA CRONOLOGÍA	<b>Erdi Aro Ondokoa Postmedieval</b>	MENDEA SIGLO	<b>XVI-XX</b>
ERAIKUNTZA DATA FECHA DE CONSTRUCCIÓN		ANTE QUEM DATA FECHA ANTE QUEM	<b>1539</b>



#### BERTARA IRISTEKO

Donibane kalea da izen bereko herria gurutzatzen duen kale nagusia, urertzaren paraleloan. Hortik aurrera egin ondoren Santo Kristo Bonantzakoaren elizara arte, Bonantza pasealekutik jarraitu behar da aurrera, Santa Isabel gaztelutik aurrera, Kalaburtza senaiara arte. Gora egin behar da Kalaburtzan hasten den aldats piko bate-tik, eta ezkerrera egin lehenengo bidegurutzean. Aldapa handietatik jarraitu behar da, semaforora eta talaiaren arrietara heldu arte.

#### DESKRIBAPENA

Jaizkibel mendiak muino bat sortzen du Pasaia badiako kanalaren sarrerako ekialdeko ertzean, eta hor daude, hain zuzen ere, talaia zaharraren aurriak. Egun, portuko itsas zirkulazioa arautzen duen semaforo bat dago horien gainean. Lau angeluko eraikin zabal baten zimenduen aurriak soilik mantendu dira; eraikina kare-kantalezkoa zen, eta itsaslabbarraren ertzean zegoen. Portuaren bokalearen ekialdean dagoen itsaslabar handiaren ertzean dago talaia, eta, bertatik, oso ongi ikusten dira portura sartzeko kanala eta bokalearen inguruko kostaldea.

#### HISTORIA

Iturriozek aipatzen ditu Atalaya eta «Mirador»-eko babeskiak, eta adierazten du XIV. eta XV. mendeetan

#### ACCESO

Tras continuar por Donibane Kalea, la principal que discurre a lo largo de la homónima población de forma paralela a la orilla, hasta la iglesia de Santo Cristo de Bonanza, se debe continuar adelante por el Bonanza Pasealekua más allá del castillo de Santa Isabel hasta la cala de Kalaburtza. Se debe continuar hacia arriba por una empinada cuesta que arranca desde Kalaburtza y tomar el primer cruce a la izquierda, continuando por pronunciadas rampas hasta el semáforo y las ruinas de la atalaya.

#### DESCRIPCIÓN

Sobre el promontorio que describe el monte Jaizkibel en la margen oriental de la entrada del canal de la bahía de Pasaia se levantan las ruinas de la antigua atalaya, que actualmente sirven de base a un semáforo que regula el tráfico naval del puerto. Tan sólo se conservan las ruinas de los cimientos de un edificio cuadrangular de bastante amplitud, construido en cal y canto, y que se halla al borde del acantilado. La atalaya, situada al borde del gran acantilado que domina la embocadura del puerto desde su margen oriental, ofrece muy buena visión del canal de acceso al puerto y del litoral inmediato a su desembocadura.

#### HISTORIA

Iturrioz menciona la Atalaya y las defensas del «Mirador» y afirma que en los siglos XIV y XV eran los

gaskoiak zirela «hacen guardia en el "Mirador" y la "Talaia"». 1606ko udalbatzaren agindu bat ere aipatzen du. Horrek agintzen du "Mirador"en zaindari bat jar dadila, kortsario frantsesen erasoetatik babesteko. Vargas Ponce-aren bildumako dokumentu bat aipatuz, eranstean du estrepadian bertan, «camino de la Talaya» dagoenean, «aterrizó» zuela Okendoko «Santa Ana»ren leherketatik salbatu zen morroi beltzak, eta artilleria-zati bat ere iritsi zela horra. Talaia eta «Mirador» (begiratokia) bereizten dituzten ebidentzia horiek guztiak aurkeztu ostean, biak identifikatzen ditu argazki-oin batean: «El "Mirador", antigua atalaya de los viejos arponeros de ballenas».

Pasaiaiko portua Donostiako jurisdikziokoa zen. Hori oztopo handia izan zen, Gipuzkoako portu nagusian itsas jarduera ahaltsuak behar bezala gauzatzeko orduan. Badiaren inguruko herrietako biztanleek oso mugatuta ikusi zuten portu-azpiegituren erabilera. Izan ere, horien erabilera Donostiako herritarren monopolioen, mugek eta, azken batean, interesen mende zegoen, eta horiek beti egiten zituzten ahaleginak beren portua bultzatzeko, eta Pasaiaiko bigarren postu batean uzteko. Donostiak zenbait muga jarri zizkien Pasaiaiko itsas jarduereri, eta, horien artean, honako hauek nabarmenduko ditugu: 1-. Arrantzaren monopolioa badia barruan, Donostiako udalbatzaren mesedetan; 2-. Arrain-kontserbak egiteko debekua; 3-. Itsas merkataritzako jarduera guztien debekua. Herritarrek hornitzeko premia biziko produktuak soilik inportatzeko baimena eman zuen, bai eta Oiarzungo arroan ekoiztutako burdina ateratzeko baimena ere; 4-. Pasaian babestutako itsasontzien hornikuntzaren monopolioa, Donostiako horma-barneko herritarren mesedetan. Pasaian bilakaera handia izan zuten jardueren artean, nabarmentzekoa da Pasaiaira edo Donostiara zuzendutako itsasontzi handiak atoian eramateko jarduera. Jarduera horretan, bai eta baleen edo beste arrantzak-aukera batzuen harrapaketan ere, lehia handia egon zen San Pedroko eta Donibaneko arrantzaleen artean, baita Pasaiaikoen eta Donostiakoen artean ere. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Donibaneko talaiatik argi eta garbi ikusten direla Uliako talaiatik egindako seinaleak. Izan ere, talaia horren ikuseremua nahiko mugatua da, mendealderantz Monpas lurmuturrera soilik iristen baita, eta ekialderantz Turroiaira arte.

gascones quienes «hacen guardia en el "Mirador" y la "Talaia"». Menciona también una orden del Concejo de 1606 para que se ponga vigilancia en el "Mirador" para prevenirse de los ataques de los corsarios franceses. Añade, citando un documento que obra en la colección Vargas Ponce, que en el mismo jaral, situado en el «camino de la Talaya», en que «aterrizó» el criado negro que se salvó de la explosión de la «Santa Ana» de Oquendo, fue a parar también un pedazo de artillería. Tras aportar todas estas evidencias que distinguen la atalaya del «Mirador», en una pie de foto los identifica: «El "Mirador", antigua atalaya de los viejos arponeros de ballenas».

La pertenencia del puerto de Pasaia a la jurisdicción de San Sebastián supuso un decisivo escollo para el óptimo desarrollo de las más pujantes actividades marítimas en el principal puerto de Gipuzkoa. Los habitantes de las distintas poblaciones que jalonaban la bahía vieron seriamente limitado el empleo de las infraestructuras portuarias, ya que su uso estaba sometido a los monopolios, límites y, en suma, intereses de los vecinos de San Sebastián, quienes siempre trataron de potenciar su propio puerto, relegando a un segundo puesto al de Pasaia. Entre otras limitaciones impuestas por San Sebastián al desarrollo de las actividades marítimas en Pasaia caben destacar: 1-. Monopolio de la pesca dentro de la bahía en beneficio del concejo de San Sebastián; 2-. Prohibición de elaboración de conservas de pescado; 3-. Prohibición de todo acto de comercio naval, autorizando únicamente la importación de productos de primera necesidad para el abastecimiento del vecindario y la extracción del hierro producido en la cuenca del Oiarzung; 4-. Monopolización del aprovisionamiento de los barcos refugiados en Pasaia en beneficio de los vecinos de intramuros de San Sebastián. Entre las actividades que tuvieron un interesante desarrollo en Pasaia destaca el ataje o remolque de grandes buques destinados a Pasaia o a San Sebastián. En esta actividad, así como en otras como la captura de ballenas u otras oportunidades para la pesca, existió una fuerte competencia entre los marineros de San Pedro y de Donibane entre sí y entre los de Pasaia y los de San Sebastián. En este sentido, destaca que la atalaya de Donibane esté ubicada de manera que sean perfectamente observables las señales de la atalaya de Uliá. De hecho, el campo visual del que disfruta esta atalaya es bastante reducido pues únicamente alcanza desde el cabo de Monpas en occidente hasta Turroia en oriente.

## BIBLIOGRAFIA

ITURRIOZ (1952, 3.-23. or).

## BIBLIOGRAFÍA

ITURRIOZ (1952, pp. 3-23).

IZENA NOMBRE **TALAIJA** FITXA ZENBAKIA FICHA NÚMERO **PAS-18**

LURRALDEA TERRITORIO **GIPUZKOA** HIRIGUNEA MUNICIPIO **PASAIA**

BESTE IZENA OTRO NOMBRE

AUZOA BARRIO **SAN PEDRO** KALEA CALLE **SAN PEDRO**

X **587471** Y **4797819** Z **18**

KRONOLOGIA CRONOLOGÍA **Erdi Aro Ondokoa** **Postmedieval** MENDEA SIGLO

ERAIKUNTZA DATA FECHA DE CONSTRUCCIÓN ANTE QUEM DATA FECHA ANTE QUEM



## BERTARA IRISTEKO

San Pedro kalearen eskuinaldetik abiatzen den eskailera batetik igo behar da; zati bat kare-kantalez eginda dago, eta beste zati bat harkaitzean zizelkatuta. San Pedro dorrea zegoen gunetik kale horretara sartuz gero, berehala hasten da eskailera.

## DESKRIBAPENA

Kare-kantalezko lau angeluko eraikuntza bat dago San Pedro auzoaren amaieran dagoen muinoaren gainean. Garai batean hor egon zen San Pedro dorrea. Oso interesgarriak dira eraikuntza horren aztarnak; harkaitzaren gainean eginda dago, eta portuaren sarrera zaintzen du, dorre baten antzera. Nabarmentzekoak dira, baita ere, barruti txikira sartzeko eskailera pikoak. Defentsa-militar-motako eraikuntza baten antzekoa da, talaia gisa ere erabili zena. Pasaia portuaren barnealdea ikusten da bertatik, bai eta itsasoratzeko kanalaren ibai-ahoa ere.

## HISTORIA

Talaia honetatik Pasaia portuaren bokalea eta Donibane talaiatik igorritako seinaleak soilik ikusten ziren. Ez dago talaiari buruzko aipamenik ia. Elortegik 1739ko dokumentu bat aipatzen du, eta «...tierra de la Talaia...» aipatzen da bertan. Gainera, adierazten du

## ACCESO

Se accede desde una escalera, en parte de fábrica de cal y canto y en parte tallada en la roca que parte hacia la derecha desde San Pedro Kalea, nada más entrar en esta calle desde la zona donde se levantaba de la Torre de San Pedro.

## DESCRIPCIÓN

Sobre el promontorio que se levanta al final del barrio de San Pedro, sobre el emplazamiento en que antiguamente se levantaba la Torre de San Pedro, existe una construcción cuadrangular de cal y canto. Son muy interesantes los vestigios de dicha construcción realizada sobre la roca y que a modo de torreón vigila la entrada del puerto. Son destacables, así mismo, las empinadas escaleras de acceso al pequeño recinto. Todo ello recuerda a una edificación de tipo defensivo-militar; usado también como atalaya. Su campo visual se limita al interior del puerto de Pasaia, así como a la desembocadura de su canal de acceso en el mar.

## HISTORIA

Apenas se han localizado menciones de esta atalaya cuyo campo visual se limita a observar la embocadura del puerto de Pasaia y las señales emitidas desde la atalaya de Donibane. Elortegi cita un documento de 1739 en que se hace mención a la «...tierra de la Talaia...».

toponimo horrek Pasaiaiko Dorrearen inguruan dagoen lautada bati egiten diola erreferentzia, eta kanala eta portua ikusten direla hortik. Ezin dugu ahaztu Pasaiaiko edo Donostiako portuetara zuzendutako merkatarizantziaz aitoan eramatea zela Pasaiaiko herritarrek iraganean gauzatzen zuten jarduera nagusia. San Pedroko eta Donibaneko herritarrek jurisdikzio desberdinetakoak zirenez, liskar ugari sortzen zen itsasontzi bat atoian eramateko garaian, edo itsasoak eskaintako beste edozein aukera baliatzerakoan. Pasaiaiko badiaren barnealdean dago San Pedro, Ulia mendiaren hegoaldeko aldean. Hori horrela, bertako bizilagunek aukera horien berri izan nahi bazuten, talaia bat eduki behar zuten heritik igorritako seinaleak ikusteko aukera emango zien toki batean, eta ondoko Donibaneko talaia, lehiakideen talaia, egindako seinaleak «zelatatzeko» aukera emango zien toki batean, azken talaia horrek ikuseremu zabala baitzeukan. Baliteke San Pedro gaztelu zaharraren hondarren zati bat izatea talaia gisa erabilitako eraikuntza hori. San Pedro gaztelua XVI. mendearen hasieran desegin zen, bere materialak dorre berriaren eraikuntzan erabiltzeko.

#### BIBLIOGRAFIA

ELORTEGI, A.M. (1992, 168).

Añade además que este topónimo hace alusión a una explanada situada sobre la zona de la Torre de Pasaia desde la que son visibles el canal y el puerto. Hay que tener en cuenta que una de las principales actividades que ejercían los vecinos de Pasaia en el pasado era la del atoaje o remolque de los mercantes que llegaban con destino a los puertos de Pasaia o de San Sebastián. Siendo los pobladores de San Pedro y de Donibane vecinos de dos jurisdicciones distintas eran muy habituales las disputas a la hora de proceder al atoaje o al aprobecamiento de otras suertes que el mar les deparaba. La única posibilidad que tenían los vecinos de San Pedro, población asentada dentro de la bahía de Pasaia en la vertiente sur del monte Ulia, para tener noticias de esas ocasiones era la de disponer su atalaya en un punto desde el que fuera posible la observación de las señales emitidas desde la población, así como el «espionaje» de las señales efectuadas desde la atalaya de la vecina y opuesta Donibane, que sí gozaba de un gran campo de observación. Es probable que esta construcción usada como atalaya corresponda a los vestigios del antiguo castillo de San Pedro que fue desmontado a principios del siglo XVI para el empleo de sus materiales en la construcción de la nueva torre.

#### BIBLIOGRAFÍA

ELORTEGI, A.M. (1992, 168).

IZENA NOMBRE **SANTA KRUZ** FITXA ZENBAKIA FICHA NÚMERO **ZRZ-44**

LURRALDEA TERRITORIO **GIPUZKOA** HIRIGUNEA MUNICIPIO **ZARAUTZ**

BESTE IZENA OTRO NOMBRE

AUZOA BARRIO **SANTA BARBARA** KALEA CALLE

X **566647** Y **4793649** Z **66**

KRONOLOGIA CRONOLOGÍA **Erdi Aro Ondokoa Postmedieval** MENDEA SIGLO

ERAIKUNTZA DATA FECHA DE CONSTRUCCIÓN ANTE QUEM DATA FECHA ANTE QUEM



### BERTARA IRISTEKO

Zarautzeko kaian dagoen Aiten-etxe parketik abiatzen da aldapan gorako harbide bat, itsasoaren gaineko lehenengo goragunera iristen dena, pinudi batera. Puntu horretan, metro gutxi batzuk jaitxi behar dira beheko bidezidorretik, talaia iristeko.

### DESKRIBAPENA

Kostaldeko errepidera jaisten den itsaslabbarraren ertzean dago talaia hau, Allepunta lumuturraren gainean. Eraikinaren aztarna ugari daude. Eraikuntzak garai desberdinetakoak izan daitezke, eta horietako batzuk berrizatu egin zituzten Montechio jauregitxoaren lorategiak talaia barne hartu zuenean XIX. mendearen amaieran. Lorategiak barne hartu zituen talaia azarnak aurri historiko gisa, garai hartako erromantizismo artistikoaren ildoei jarraiki. Talaia dagozkion arrastoei dagokienez, nabarmentzekoa da beheko balkoi jarraitu erdi-zirkularra, 1 m-ko zabalera eta 1,5 m-ko luzera dituen, eta harlangaitz-hormaz egin dagoena. Sartzeko eskailera bat dauka, harlangaitz-hormazkoa baita ere. Horren gorakako zati batzuk mantendu dira –talaia gainerako elementuetara zuzentzen direnak–, bai eta beheakako zati batzuk ere, itsaslabbarraren behealdera jaisten direnak. Gorago, itsaslabbarraren ertzean baita ere, 5 bat metroko diametroa duen plataforma erdi-zirkular bat dago, metalezko baranden arrastoak dauzkana. Zulo

### ACCESO

Desde el parque de Aiten-etxe, situado en el muelle de Zarautz, parte un empinado sendero calzado que conduce a la primera prominencia sobre el mar, ocupada por un pinar. En ese punto se desciende unos pocos metros desde el sendero abajo para llegar a la atalaya.

### DESCRIPCIÓN

Se conservan bastantes evidencias constructivas de esta atalaya ubicada al borde del acantilado que cae hacia la carretera de la costa, sobre el cabo de Allepunta. Las construcciones pueden corresponder a distintas épocas y algunas de ellas fueron reformadas al pasar la atalaya a formar parte del jardín del palacete de Montechío a finales del siglo XIX. Los vestigios de la atalaya fueron incluidos en el jardín a modo de ruinas históricas, muy en la línea del Romanticismo artístico imperante en la época. Entre los restos relacionados con la atalaya, destaca la balconada semicircular inferior de 1 m de anchura y 1,5 m de longitud, construida en mampostería. Cuenta con una escalera de acceso, también de mampostería, de la que se conservan varios tramos ascendentes –hacia el resto de los elementos de la atalaya– como descendentes hacia el pie del acantilado. Más arriba y también al borde del acantilado se conserva una plataforma semicircular de unos 5 m de diámetro, con restos del barandado metálico. Junto a ella existe



bat dago horren ondoan, ur-tanga gisa erabiltzeko egokituta.

Punturik gorenenean, dorre erdi-zirkular bat dago, gutxi gorabehera 2 m-ko garaiera duena, eta 1,6 m-ko diametroa; horra sartzeko aldapa perimetral batetik igo behar da. Gailurrean beste balkoi jarraitu bat dago, lehenago deskribatutakoaren antzekoa. 0,9 m-ko zabalera dauka balkoi jarraituak, eta 1,5 m-ko luzera. Etxola baten aurriak daude dorrearen eta hareharritzko geruzaren azaleratzearen kontra jarrita, eta horren altxaerak mantentzen dira oraindik. Gutxi gorabehera, 10 m<sup>2</sup>-ko oinplanoa dauka. Hegoaldeko itxura lerrozuzenean dago sarrera-atea, bai eta leiho bat ere; iparraldeko horman, oinplano triangeluarra duenean, beste ate bat eta beste leiho bat daude. Multzo honetatik gertu, hareharritzko azaleratze batean zizelkatutako aulki batzuk daude, itsasora begira. Toki hau bikaina da Zarautzeko hondartza behatzeko; bere ikuseremua Getariaraino iristen da mendebaldetik, eta Zarautzetik ekialdera dauden portu gipuzkoar guztietako bokaleak ere ikusten dira. Duela urte gutxi, espazio hau berreskuratu egin zen itsasorako bistak dituen parke batean sartzeko, baina egun nahiko utzita dago.

## HISTORIA

Ezaugarri eta kokapen desberdineko aztarnak, agian talaia honek historikoki izan zituen funtzio desberdinen erakusgarri dira: talaia baten funtzio espezifikoak, eta seinero-postu batenak. Balkoi jarraitua pulpitu baten antzera ateratzen da portu txikiko sarrera zaileko mendebaldeko itsaslabarraren gainean; baliteke seinero-postu baten funtzioak betetzeko erabili izatea, hau da, itsasontziak gidatzeko nabigazioko puntu zail horretan. Dorre zilindrikoa izango zen talaia, horren aldapa perimetralarekin eta etxolarekin batera. Aragon Ruanok eta Alberdi Lonbidek aipatzen dute Zarautzeko arrantzalekofradiak 1778an «capitán de mar» postua sortu zuela, «...equivalente al "señero" de otras cofradías, siendo el encargado de dirigir desde la atalaya de Santa Cruz las maniobras de entrada y salida de las embarcaciones pesqueras desde el puerto...». Zarautzeko kostaldeak ez zeukan portu-gune egoki bat ezartzeko aukera handirik, eta, horregatik, itsas jarduerak ez zuten behar bezalako bilakaerarik izan bertan. Hala eta guztiz ere, arrantzaileen komunitate bat egon zen mendeetan zehar, eta, beraz, nahitaezkoa zen talaia bat edukitzea itsasoak eskainitako aukeren berri emateko. Azpimarratzekoa da talaia honetatik igorritako seinaleak ezin direla ikusi Zarautzen ekialdera eta mendebaldera dauden ondoko bi herrietatik: hau da, Oriotik eta Getariatik, hurrenez hurren. Mendebalderantz, talaia honen ikuseremua Ge-

un covacho habilitado como aljibe. Arriba del todo se levanta la torre semicircular de una altura aproximada de 2 m y 1,6 m de diámetro, a la que se accede por una rampa perimetral. En la cúspide presenta otra balconada similar a la documentada en la parte más inferior de la atalaya. Esta balconada tiene una anchura de 0,9 m y una longitud de 1,5 m. Apoyado entre la torre y el afloramiento del estrato de arenisca se aloja la ruina de una caseta que aún conserva los alzados. Tiene una planta aproximada de 10 m<sup>2</sup>. El cierre meridional rectilíneo presenta la puerta de acceso y una ventana y el muro septentrional de planta triangular cuenta con otra puerta y otra ventana. Cerca de este conjunto y tallados en un afloramiento de arenisca son observables varios asientos con vistas al mar. Este enclave constituye un perfecto mirador de la playa de Zarautz y su campo visual incluye Getaria al Oeste y las embocaduras de todos los puertos guipuzcoanos situados más al Este de Zarautz. Hace pocos años el espacio fue recuperado para su inclusión en un parque con vistas al mar; pero su estado actual es de abandono.

## HISTORIA

Los restos de distintas características y ubicación parece que corresponden a las distintas funciones históricamente ejercidas por esta atalaya: las funciones específicas de una atalaya y las correspondientes a un señorero. Es muy probable que la balconada, que a modo de púlpito se yergue sobre el acantilado occidental del complicado acceso del pequeño puerto, sirviera para las funciones relacionadas con el señorero, encargado de guiar a las embarcaciones en este punto de comprometida navegación. La torre cilíndrica, con su rampa perimetral y la caseta constituirían la atalaya. Aragón Ruano y Alberdi Lonbide mencionan que la cofradía de pescadores de Zarautz instituyó en 1778 la figura del «... "capitán de mar", equivalente al "señero" de otras cofradías, siendo el encargado de dirigir desde la atalaya de Santa Cruz las maniobras de entrada y salida de las embarcaciones pesqueras desde el puerto...». Las escasas potencialidades de la costa de Zarautz para el establecimiento de un adecuado complejo portuario impidieron el desarrollo óptimo de las actividades marítimas. Con todo, a lo largo de los siglos existió siempre una comunidad de pescadores, de manera que era indispensable la disposición de una atalaya que les avisara de las distintas suertes y oportunidades que les deparaba el mar. Significativamente, las señales emitidas por esta atalaya no son observables por ninguna de las dos vecinas localidades

tariako San Anton uhartera iristen da soilik, baina, ekialderantz, berri, Gipuzkoako gainerako portu guztietako bokaleak ikusten dira. Hori horrela, merkataritzaren alorrean garrantzi handia zuten portuetako itsas zirkulazioaren berri izan zezakeen, hala nola Donostiako, Pasaia eta Hondarribiko zirkulazioaren berri. Informazio hori funtsezkoa zen portu horietan garrantzi handiko produktuen erosketak negoziatzeko orduan, hala nola atzeritik zetozen elikagaienak.

#### BIBLIOGRAFIA

ARAGON RUANO – ALBERDI LONBIDE (2004).

que flanquean a Zarautz por el Este y el Oeste: Orio y Getaria respectivamente. Aunque el campo visual que se disfruta desde esta atalaya se limita por su lado occidental a la observación de la isla de San Anton de Getaria, por su lado oriental se observan las embocaduras de todos los puertos de Gipuzkoa situados más al Este. De esta manera se podía disponer de noticias del tráfico naval de puertos de gran importancia comercial como San Sebastián, Pasaia y Hondarribia, información vital a la hora de acudir a ellas a negociar la compra de determinados productos de gran importancia como víveres procedentes del extranjero.

#### BIBLIOGRAFÍA

ARAGÓN RUANO – ALBERDI LONBIDE (2004).

IZENA NOMBRE	<b>TALAIPUNTA</b>	FTXA ZENBAKIA FICHA NÚMERO	<b>ZRZ-45</b>
LURRALDEA TERRITORIO	<b>GIPUZKOA</b>	HIRIGUNEA MUNICIPIO	<b>ZARAUTZ</b>
BESTE IZENA OTRO NOMBRE			
AUZOA BARRIO	<b>TALAIMENDI</b>	KALEA CALLE	
X	<b>568982</b>	Y	<b>4793848</b>
Z			<b>86</b>
KRONOLOGIA CRONOLOGÍA	<b>Erdi Aro Ondokoa</b> <b>Postmedieval</b>	MENDEA SIGLO	
ERAIKUNTZA DATA FECHA DE CONSTRUCCIÓN	ANTE QUEM DATA FECHA ANTE QUEM		



#### BERTARA IRISTEKO

Kostaldeko errepidetik (N-634) Donostiarako norabidean goazela, behin Zarautz atzean utzi dugunean, Zudugarai Gainera igotzeko lehenengo aldapak hasten direnean, Talaimendiren gailurrean dagoen Gran Camping de Zarautzera doan errepidea (PR GI-33) hartu behar da. Kanpineko aparkalekuan, Berazadi zahar baserriari begira gaudela, ezkerrera dagoen lehenengo pistatik jaitsi behar da. Jarraian, eskuinerantz jarraituko diogu bidezidorrari, itsasoaren gaineko belardien lautadara iritsi arte; horren bazterrean dago talaia-tokia.

#### DESKRIBAPENA

Itsaslabarraren ertzean dago talaia, lautada zabal baten bazter batean. Belardiak eta Gran Camping de Zarautz daude lautada horretan. Uhartea eta Mollarriko edo Malla arriako arrezifeak ikusten dira Talaiatik. Puntu horretan, tumulu-egitura bat dago, erdialdean sakonune bat daukana; eraztun handi baten forma dauka, eta baliteke talaia honen aztarna bakarra izatea. Ez dakigu zer zen 3 bat metroko diametroa daukan eraztun-egitura hori, talaia zegoen inguruan ikusten dena. Edonola ere, hori da belardi osoan ikusten den aztarna bakarra, eta, guk dakigunez, inguru horretan ez zen beste jarduerarik gauzatu talaia-jardueraz gainera. Puntu horretatik

#### ACCESO

Tras dejar atrás Zarautz siguiendo la carretera de la costa (N-634) en dirección hacia San Sebastián, en la rotonda del inicio de las primeras rampas de subida hacia el Alto de Zudugarai, se debe tomar la carretera (PR GI-33) que conduce al Gran Camping de Zarautz, en lo alto del monte Talaimendi. En el aparcamiento del camping y puestos de frente al edificio del caserío Berazadi zahar se debe tomar la primera pista de la izquierda hacia abajo, para continuar inmediatamente hacia la derecha por donde continúa el sendero hasta la gran planicie de praderas sobre el mar; en cuyo extremo se ubica el emplazamiento atalayero.

#### DESCRIPCIÓN

La atalaya se ubica al borde del acantilado, en la esquina de una extensa planicie, ocupada por prados y por el Gran Camping de Zarautz, dominando la isla y los arrecifes de Mollarri o Malla arria. En ese punto se observa una estructura tumular con una depresión central, en forma de gran anillo, único vestigio, quizás de esta atalaya. No se conoce la naturaleza de la estructura anular de unos 3 m de diámetro visible en el entorno en que se ubicaba la atalaya. De todas maneras es la única evidencia observable en toda la pradera y no hay constancia del desarrollo de ninguna otra actividad en ese entorno más allá del atalayero. Desde este punto

ikuseremu interesgarria dago, hain zuzen ere, Getariako San Anton uhartetik Higer lurmuturrera artekoa.

## HISTORIA

Baleetarako talaia espezifikoak zen. Mollarri uhartearen erabilerarekin lotuta zegoen, baleak harrapatzeko portu edo itsasoko postu aurreratu gisa erabiltzen baitzuten uharte hori arrantzale zarauztarrek. Aragon Ruanok eta Alberdi Lonbidek udalerriko «ordenanças de ballenas» aipatzen dituzte, 1637koak; beste gai batzuen artean, talaiarien soldadak arautzen dituzte, eta «Umallarria»ra edo «Malla arria»ra egindako balea-espedizioak aipatzen dituzte. Berreskuratze-lanak egin berri dira Mollarriko minerala kargatzeko tokian, eta horiek eragina izan dute talaia egondako inguruan.

## BIBLIOGRAFIA

ARAGON RUANO – ALBERDI LONBIDE (2004).

se disfruta de un interesante campo de visión que se extiende desde la isla de San Anton de Getaria hasta el cabo de Higer:

## HISTORIA

Constituye una atalaya específicamente ballenera, relacionada con el uso que los pescadores de Zarautz hacían de la isla de Mollarri como puerto o puesto avanzado en el mar para la caza de ballenas. Aragón Ruano y Alberdi Lonbide citan las «ordenanças de ballenas» municipales de 1637, que entre otras cuestiones regulan las soldadas de los atalayeros y mencionan las expediciones balleneras a «Umallarria» o «Malla arria». Las recientes obras de recuperación del Cargadero de Mineral de Mollarri han afectado a la zona donde se ubicaba la atalaya.

## BIBLIOGRAFÍA

ARAGÓN RUANO – ALBERDI LONBIDE (2004).

IZENA NOMBRE	<b>FAROLA</b>	FTXA ZENBAKIA FICHA NÚMERO	<b>ZUM-42</b>
LURRALDEA TERRITORIO	<b>GIPUZKOA</b>	HIRIGUNEA MUNICIPIO	<b>ZUMAIA</b>
BESTE IZENA OTRO NOMBRE			
AUZOA BARRIO	KALEA CALLE	<b>JULIO BEOBIDE IBILTOKIA</b>	
X	<b>560859</b>	Y	<b>4794862</b>
Z	<b>32</b>		
KRONOLOGIA CRONOLOGÍA	<b>Erdi Aro Ondokoa Postmedieval</b>	MENDEA SIGLO	<b>XVI-XX</b>
ERAIKUNTZA DATA FECHA DE CONSTRUCCIÓN	ANTE QUEM DATA FECHA ANTE QUEM	<b>1789</b>	



### BERTARA IRISTEKO

Muino honen gailurrera iristeko, aldapan gorako bidezi-dor bat hartu behar da Urolaren ibai-ahoko kai-muturra hasten den tokian.

### DESKRIBAPENA

Eraikin txiki bat da, kare-kantalezkoa, eta egurrezko egituraren gainean teilaz estalitakoa. Ezaugarri arkitektoniko interesgarriak eta bereziak dauzka, itsasontzi bateko zubiaren antza ematen diotenak.

Urolaren ibai-ahoaren gaineko muinoaren tontorrean dago, itsasargiaren ondoan. Oso ongi ikusten da ibaiaren itsasoratzea badián.

### HISTORIA

Talaia honi buruzko berri historiko gutxi bildu ditugu. Tofiñok aipatzen du «...Sobre la punta occidental, que es alta, gruesa y escarpada con piedras á su pie, está una casita para vigía...». Ibai-ahoaren ertzean dagoela aintzat hartuz gero, baita goragoko beste toki batean beste talaia bat dagoela ere, pentsa dezakegu horren funtzio nagusia izango zela seinerio-postu gisa jardutea Zumaiaiko barra zailetik zehar nabigatu nahi zuten itsasontzientzat. Talaia honek ikuseremu mugatua dauka ekialderantz; izan ere, Izustarriko lurmuturrera arte

### ACCESO

Se accede a la cumbre de este promontorio a través de un sendero que parte hacia arriba desde donde se halla el arranque del espigón de la desembocadura del Urola.

### DESCRIPCIÓN

Se trata de un pequeño edificio de construcción de cal y canto y cubierta de teja sobre la estructura de madera. Sus interesantes y peculiares características arquitectónicas le confieren cierta apariencia de puente de embarcación.

Se ubica en la cumbre del promontorio que domina la desembocadura del río Urola en el mar; junto al faro, constituyendo un perfecto observatorio de la ensenada en la que desemboca.

### HISTORIA

Son muy exiguas las noticias históricas que se han podido reunir sobre esta atalaya. Tofiño menciona que «...Sobre la punta occidental, que es alta, gruesa y escarpada con piedras á su pie, está una casita para vigía...». Por su posición, al borde de la desembocadura, y teniendo en cuenta la existencia de otra atalaya en un punto más elevado, hace pensar que su principal función sería el de señero para las embarcaciones que pretendiesen navegar a través de la problemática barra de Zumaia. El campo visual de esta atalaya es muy reducido hacia el



besterik ez da heltzen. Lurmutur horrek ixten du Urolaren ibai-ahoko badia. Mendebalderantz, berriz, ikuspen handia dauka, Matxitxakoko lurmuturrera artekoa hain zuzen ere. Ontzigintzan espezializatutako portu gisa nabarmendu zen iraganean Zumaia. Garrantzitsua izan zen, baita ere, Urolaren behealdeko arrora zuzendutako atzerriko elikagaien inportazioan jokatu zuen papera, bai eta, ordainetan, eskualde horretan ekoiztutako burdinaren esportazioan ere. Beraz, bi jarduera horietarako oso garrantzitsua zen ibai-ahoko itsasoaren egoera zaintzea. Jarduera horietako azkenari zegokionez, gainera, interesgarria zen jakitea Mutrikuko portuan zer itsas zirkulazio zegoen. Mendebalderago zegoen Mutriku, eta zirkulazio handia egoten zen bertan, elikagaien inportazioa eta burdinaren erauzketa zirela eta. Aldiz, ekialderago zeuden portuetako zirkulazioaren berri izatea ez zen horren garrantzitsua, ez baitziren nabarmenak merkataritza-jardueran.

#### BIBLIOGRAFIA

TOFIÑO (1789; berrargitalpena, Euskal-Erria 44, 1901).

oriente pues no alcanza más allá del cabo de Izustari, que cierra la ensenada de la desembocadura del Urola. Hacia occidente, en cambio, disfruta de una importante visibilidad, que alcanza hasta el cabo Matxitxako. Zumaia destacó en el pasado como importante puerto especializado en la construcción naval y fue relevante también su papel en la importación de víveres extranjeros con destino a la cuenca baja del Urola y en la extracción, como contrapartida, del hierro producido en esa comarca. Por lo tanto, en el caso de estas dos actividades, resultaba muy importante la vigilancia del estado de la mar en la desembocadura, y en el caso de la última de las actividades era interesante conocer el tráfico naval del cercano puerto de Mutriku, situado hacia el Oeste y que albergaba un importante tráfico de importación de víveres y de extracción de hierro. En cambio, las noticias relativas al tráfico de los puertos situados inmediatamente al Este no eran tan relevantes, pues no destacaba en la actividad comercial.

#### BIBLIOGRAFÍA

TOFIÑO (1789; reedición en Euskal-Erria 44, 1901).

IZENA NOMBRE **TALAIMENDI** FITXA ZENBAKIA FICHA NÚMERO **ZUM-43**

LURRALDEA TERRITORIO **GIPUZKOA** HIRIGUNEA MUNICIPIO **ZUMAIA**

BESTE IZENA OTRO NOMBRE

AUZOA BARRIO **LARRETZO** KALEA CALLE

X **560377** Y **4794850** Z **78**

KRONOLOGIA CRONOLOGÍA **Erdi Aro Ondokoa Postmedieval** MENDEA SIGLO

ERAIKUNTZA DATA FECHA DE CONSTRUCCIÓN ANTE QUEM DATA FECHA ANTE QUEM



## BERTARA IRISTEKO

Larretxoko auzoan hasten da hartu beharreko bidezidorra, mendian gora, natura-interesa duen ibilbide gisa egokitua izan dena. Zehazki, Itzurun zuhaizbidean hasten da bidezidor hau; Itzurungo hondartzara heltzeko oinezkoentzako bidea da. Mendian gora igotzen da bidezidorra gailurrera arte; han dago, itsaslabarraren ertzean, eta sasiz inguratuta, talaiarekin lotzen den monolitoa.

## DESKRIBAPENA

Toponimoaz eta berreskuratutako ahozko informazioaz gainera, badago talaia honen aztamarik; hareharrizko bloke bat da, eta zenbait zizelkadura ikusten dira bertan, kaxola itxurakoak, dirudinez talaia-funtzioekin lotuta zeudenak. Talaimendiren tontorrean dago monolito hori, itsaslabarraren ertzean. Urolaren ibai-ahoko badia ikusten da bertatik.

## HISTORIA

Talaiaren ikuseremua ez da batere zabala; izan ere, ekialderantz Urolaren ibai-ahoko badia soilik ikusten da, eta ezin da ikusi Izustarriko lumuturretik haratago dagoen kostaldea. Mendebalderantz, berriz, Matxitxakoko lumuturrera arte iristen da ikuseremua, beraz, garai bateko Zumaiaiko herritarrek Matxitxakora bitarteko

## ACCESO

Se accede a través de un sendero habilitado como paseo o itinerario de interés natural, que parte, monte arriba, desde el barrio de Larretxo. Concretamente, este sendero parte desde Itzurun Zuhaizbidea, que constituye la vía de acceso peatonal a la playa de Itzurun. El sendero sube monte arriba hasta la cumbre, donde, al borde del acantilado y rodeado de zarzas se halla el punto en que se ubica el monolito asociado a la atalaya.

## DESCRIPCIÓN

Aparte del topónimo y de las informaciones orales recuperadas, las evidencias de esta atalaya se reducen a un gran bloque de piedra arenisca, en el que son visibles varios entalles a modo de cazoletas y que al parecer estaba asociado a las funciones de la atalaya. Este monolito se sitúa en la cumbre de Talaimendí, al borde del acantilado. Su campo visual se circunscribe al marco de la ensenada en la que desemboca el río Urola.

## HISTORIA

El campo visual de esta atalaya es bastante incompleto, pues hacia oriente se reduce al espacio de la ensenada donde desemboca el Urola, no siendo visible la costa más allá del cabo de Izustarri. Hacia occidente en cambio su campo de visión alcanza el cabo Matxitxako, de manera que los antiguos vecinos de Zumaia podían

mendebaldeko portuetako itsas zirkulazioaren berri izan zezaketen. Laburbilduz, antzeko ikuseremua zuten talaia honek eta beherago dagoenak, ibai-ahoko goragunean. Nabarmentzekoa da talaia honetatik hobeto ikusten dela Itzurunen, Algorriren eta Itsasperen inguruko kostaldea. Talaimendiren mendebaldean dago inguru hori, eta ezin da ikusi ibai-ahoko Farolako talaiatik, Marianton lurmuturrak ikuspena eragozten baitu. Bukatzeko, gertuko mendebaldeko itsas eremua behatzea izango zen talaia honen helburu nagusia, baleak edo beste arrantza-aukera batzuk ikusi ahal izateko. Kontuan izan behar da Urolaren barra zailak arrantza-sektorearen bilakaera eragotzi zuela hiribildu horretan; ondorioz, jasota geratu da Itzurungo eta Algorriko senaiak erabiltzen zituztela baleak harrapatzeko. Horren erakusgarri da Itzurungo Balezulo toponimoa. Azken finean, «baleetarako» talaia espezifikoa izango zen.

#### BIBLIOGRAFIA

ERKOREKA (1991); IMAZ (1944); TOFIÑO (1789).

disponer de noticias sobre el tráfico marítimo de los puertos situados más al Oeste, hasta Matxitxako. En suma, no es mucho más amplio el campo de visión de esta atalaya que el que se disfruta desde el situado más abajo, en el promontorio de la desembocadura del río. Sí es de destacar que desde esta atalaya se dispone de una mejor visibilidad de la costa de la zona de Itzurun, Algorri e Itsaspe, situada inmediatamente al Oeste de Talaimendi, zona que no es observable desde la atalaya de la farola de la desembocadura pues el cabo de Marianton impide su visión. En suma, el principal objetivo de esta atalaya sería la observación de ese espacio marítimo situado inmediatamente al Oeste, al objeto de descubrir la presencia de ballenas y de otras oportunidades pesqueras. Hay que tener en cuenta que la problemática barra del Urola limitó siempre el desarrollo de un poderoso sector pesquero en la villa, de manera que hay noticias del uso de las calas de Itzurun y de Algorri en la captura de ballenas. No en vano existe aún el topónimo Balezulo en Itzurun. Se trataría, en suma, de otro caso de atalaya específicamente «ballenera».

#### BIBLIOGRAFÍA

ERKOREKA (1991); IMAZ (1944); TOFIÑO (1789).